

anaitasuna

1976.EKO URRIAREN 15EKOA.
326.ZENBAKIA 25 PTA.

**40 urtetako
euskaldunon
gobernua**



BAZKALONDOKO LAGUNIK ONENA



Ondo bazkandu ondoren, ba dakigu zer... Ba dau-
de, egon, paper sofistikatuagoak, kolorezkoak, usain
onekoak, etab. Gure ustez horik guztiok koplakeriak dira.
Egiaz behar dena hauxe da: paper on bat, tolestu beharrik
ez duena, eskuan nekez apurtzekoa eta problemarik gabe
garbitzen duena. Eta, gainera, iraunkor eta merkea.

"EL ELEFANTE"

Betidanikoa, luzeena eta merkeena duzu.

EUSKAL HERRIAN

AZKOITIA IKARATAN

Erasoaren beldurrez bizi izatea ez da ederra. Aspalditik Euskal Herria horrela dago. Izan ere zerbaite esan edo egin nahi izan duen bakoitzean egurra hartu du. Eta honela isilean eta izkutuan ibiltzen ikasi du eta egoera honetatik irten egin behar da.

Herria ikaratan dago. Gauza asko esan beharrik ere ez dago, baina herria tensio gogorrean bizi da.

Lehen liburu dendak ziren. Gaur neska bat —Maria Jesus Gurruchaga— zaurituta eta sendakaitegi edo botikategi bat —Uria alkatearen emaztearena— bombaz lehertuta. Gaur edo bihar edonor izan daiteke eskuin eta orden zaintzaileen (goardi-zibilak...) aldeko indarkeriaren helburua.

Eskuindarrek beren legeen babesean ibili dira beti eta bestalde ekintza horien indarkeriaren azpian egon gara denok. Orain gure herrian gertatzen ari dena ez da gauza berria. Berrogei urteotan gertatu dena da.

Gu nor garen galdetuko dute norbaitzuk. Gu nor eta zer garen esan behar handirik ez dagoela uste dugu. Bakarrik egiaren maitaleak gara, egi gosa eta egarri handikoak gara.

Informe hau egitearen arrazoina "La voz de España" eta "Diario Vasco" ren berrien manipulazioa izan da. Ohartu gara Azkoitiko gertakizunen berri ematea oso motza eta gezurrezkoa izan dela eta egiak bere lekua izan dezan, txosten hau idatzi dugu.

Bestalde gu ez gara periodistak, bakarrik hemengo gertakizunen berri nahi dugu eman eta gainera ahal dugun eta zabalera handienaz.

Txosten honen egileak herriko jende anitzen iritziez baliatu dira informazio hau agertzeko.

Esan digutenez, Maria Jesus Gurruchaga, zauritutako neska, ondo omen dago, eta honek sendategitik edo hospitaletik irtetzen duenen berri zehatzagorik emanen dugu.

LEKUKOAK MINTZO

Irailak 27, astelehena.

Egun hau, Euskal Herri guztian bezala, zaratsu eta iluna izan zen. Ezin genituen ahantz ihazko gertakizunak.

Astelehenean leku guztiak gelditu ziren. Gaueko 8ak.



Gero, gaueko 8ak inguru horretan manifestazio bat egin zen, eta 8 terdietarako amaiturik zegoen. Ondoren, jendea etxerantz ziholarik goardi-zibilak azaldu ziren —manifestazioa 5 edo 10 minutu bukatu zela— eta kalez kale egurra ematen hasi ziren eta orduan jendea bakean zegoelarik korrika eta ihes egitera behartuta izan zen. Kaleak gora-behera, honetako batean, goardi-zibil talde bat Plaza-berri aldera zetorrela, jendea ihesika zebilne, etxeke atarietara, sartuz edo ahal zuen lekutik irten ez. Honela, Mari Jesus Gurruchaga "Correos" etxeke atarian sartu eta lehenbiziko bizi-tokiraino igon zen eta han ilunetan zegoelarik norbaitek argia piztu, hark burua aterata eta gordi-zibilak izan. Hauek orduan, beheara jeisteko esan zioten, beheara zetorrela, danba! goardi-zibil batek ezer egin eta esan gabe, tiroa bota zion.

Bitartean, tiroen soinuekin herria erdi izuturik zegoen. Jendea alde batetik besteraino korrikan eta kristorenak hartuz zebilen. Batzu laugarren bizi-tokiraino persegituak izan ziren, kulatazoak ugari eta mehatxuak ere ez ziren falta.

Bestalde, Mari Jesus zauriturik zegoen, ezer esan gabe, eta bi metrotara baino ez zegoen arren, tiroa bota zioten. Lurrera erori eta gero bere kabuz jeiki zen eta erren ibiliz eta odolez, ataritik irten zen.

Gero, goardi-zibilak lagundu ere ez zioten egin, bakarrik galdera hau egiteko ausardia eduki zuten, "Zer gertatzen zaizu?", eta Mari Jesusek erantzun, "Utz nazazue baketan" eta ondoren bera bakar bakarrik etxera —ahal zuen moduan— joan zen. Etxe ingurura iritxi zenean, bere etxepekoek, onharturik lagundu zuten, ondoren sendagilea deitu, eta Donostiara eraman zuten.

Herriko sendagile batek egin zuen "parte medikuak", hau esaten zuen: "Orificio de entrada: Tercio medio externo muslo izquierdo Salida: Tercio inferior interno, muslo izquierdo".



Honela, herria erdi ikaratan oheratu zen, baina gaueko bakeak ez zuen asko iraun.

IRAILAK 28, ASTEARTEA

Goizeko 4ak.

Goiza aurrera zihoan, eta goizeko 4ak inguru horretan, Azkoitiako herria zarata ikaragarri eta ezkil edo kanpai hots larri batez esnatua izan zen. Jendea kaleratu zen, gertatuaren berri jakiteko. Etxe guztietako lehioak jendez estalirik zeuden, erantzunaren egarri eta ikaraz beterik.

Zurumurrua olioa bezain azkar zabaldu zen, Zurumurruak hau zioen: "Alkatin andrien botikie bonbaz apurtute eta txikitute izen dek" (azkoitiarrez).

Zurumurruak ugari, mar-marrak ere ez ziren falta, eta honela egunsetiaren zain, gertakizunaren arrazoinaz jabetzeko asmotan berriro ere, herria oheratu egin zen.

Goizeko manifestazioa.

Egun honetan Azkoitia oso gelditurik zegoen. Batzu goiz goizetik, gehienak 10ak alde horretan, eta guttiek eguerdirako.

Kaleak jendez estalirik, denak botikategia ikusi nahian, eritziak ugari erdi isiltasunezko elkar-hizketan, aurpegi luzeak...

Herri giroa horrela zegoen, eta goizeko 10 t'erdia inguru horretan, Azkoitiako herria alkatea eta neska zaurituarekin zegoela adierazi nahirik,



manifestazio isil eta handi bat egin zen. Manifestazio honetan herri osoak parte hartu zuela esan daiteke.

Eta arratsean, beste manifestazio bat izan zen.

ITSUMENAREN ONDORIOAK

Itsumenak ez du gauza onik ekartzen. Itsumenaren setak eta harrokeriak honelako asko egin du. Oraingoan ere neska gazte bat zauritu du, bere atzarretan. Bestalde, botikategi bat lhertua izan da.

Harmak ez du begirik. Harmarik gabe gizartea noizkorako ote dugu?

Betor lehenbailehen.



**Gaurkoa zarenorri
guk ezer eskaintzean,
biharko emakumeari ere
ari gara eskaintzen.**

Laguntza berriak
zuri ematean,
zure nekeak, zure kezka zaharrak
dihardugu arintzen.

Berriak dira,
zuretzat ditugun asmoak:
onhartzten zailtxoak beharbada,
guztionez baitira berriak.

Baina zein ederra den pentsatzea,
gaurko urrats zailok
aurrera gaituztela bideratzen,
biharko digutela
bidea urratzen!

Emakumearen Bankua,
Gaurkoa eta Biharkoa

BANCO DE BILBAO



EUSKAL HERRIAN



BIZKAIKO PRESO POLITIKOEN SENIDEEN BILERAKO AGIRIA

Euskal preso politikoek, emana izan den "amnistia" delakoaren aurrean, hain esku hestuz erabilia dela ikusirik eta Espaniko Estatuko espetxerik gogorrenetan, benetako tortura gisako egoeretan (hainbeste aldiz guk salatuak izan arren agintarien aldetik erantzun positiborik hartu gabe) euskal preso gehienak zigortuta jarraitu beharko dutela konturatuturik hau jakin erazten dugu:

Gure Herria aspalditik iraindua agiri zaigula bere nortasunean (indar gogorrez bere hizkuntza, kultura, eskubideak eta askatasun orokorrak ostikopetuak) eta egunero egoera bortxatzaile baten menpean dagoela (hor ditugu pertsona-araketak, etxeazterketak, lanetik botatzeak, moltzozka agindako atxilotzeak, torturak, espetxeak, herbesta, heriotzak) bildur-giro zabal batetan. Egoera hau zeharo ugartua izan da azken urte bi hauetan, eta batez ere azkenengo hilabeteetan hain garbi agiri manifestazioak bai jaialdiak bai bestelako herriko agergerriak desegiteko askatasun eta arrisku osoz erabiliak izan dira pistolak, fusilak eta metrailetak. Ia egunero entzuten dira tiroak Euskadin, eta tiro horiek, sarriegi zoritxarrez, zaurituak eta hilak egiten dituzte, nor nor den bereiztu gabe, Gure Euskal Herria eguneroko ezinbesteko eta nahigabezko bildurpean jarriaz. Erandio, Lekeitio, Gasteiz, Basauri, Burgete, Santurtzi, Hondarribi herrien izenek, beste askoren artean, gure Herriko tragedia adierazten dute.

Hauk honela, gero ekintza gogor batzuren aurrean aurkitzen gara (hauetakako asko gure senideei leporatuak izan dira) eta Nafarroako apezek 1973ko otsailaren 4an esan zuten bezala, meperatutakoen eta oinperatutakoen erantzunak baino ez dira; edo eta Herriak lehendik leporatua duen zapalkuntzaren aurka egindako zerbait. Zapalkuntza eten gabe horrek sortuak dira, noski, zapalduak eta zigortuak eta irainduak beraien eskubide orokorrak zaintzeko erabiltzen dituzten indarrezko ekintza horiek.

Ofialki jarraia eta legez onhartua izan den bildur-larrikoko egoera hori gabe ez zen sortua izaneren gaur egunez hain maltzurki aipatua izan den "terrorismoa".

Gainera, gure senideen aurka eramandako haulariak inolazko defentsarik eta segurtasunik gabe eginak izan dira eta epai denak proba bakar batetan oinharrituta emanak hots: presoei komisaldegietan zigorren bidez ataratako aitordenetan.

Bestalde, argi agiri zaigu espetxeratutako emandako neurri gabeko epaietan jokera politikoz batzuk zigortu nahi izan direla (gure Euskal Herriak askatua izateko daraman burruka-jokera, hain zuzen) eta ez egite konkretu batzuk.

Hauk honela, gure kasu dugun "Amnistia" izaneko Dekretu-lege denari begiratu, egiten dituen bereizketak alde, (inolaz ere ezin dugu egiazko amnistiatzat hartu, herriaren deiak eta manifestazioak uxatzeko bidetzat baizik) aurrera eramatea Justizialko Tribunalen esku uzten da. Honek zeharo urrituko du irtengo diran presoek taldea —agirian gertatzen ari den bezala— ba, ezer egin dugu itxaron, esko gogorrokoak izatea baino, inolazko errukirik eta probarik gabe gure senideei heriotz-epaiak eta ehundaka urteetakoak eman dizkieten eskubideetatik. Dekretu horretan ez dira langintza-amnistia-aren eskabideak ere betetzen, beraien interesen eta lagunen alde, ugazaben eta lan-agintarien aurka jokatzeagaitik zigortuak izan diren kaleratuei lan egiteko eskubidea ukatuz.

Amnistia honekin azken gerrako zauriak sendatu nahi omen dira. Gure senide espetxeratutako gure arteko edozein preso edo herbesteratu, gaur egun gerrako ondorengoak ditugun aztarnak dira. Hain zuzen, gure senideek —beste askorekin batera noski— makurturik jasan nahi ez eta espetxerako edo herbesterako edo heriotzerako bide izan dituzten zapalkuntza eta askatasun-eza, ordutik datozen. Eta oraindik aurrera ere gerra-aztarnak izanen ditugun preso politikorik espetxean den artean, herbesteraturik etxera etorri ezinda aurkitzen den artean, edo eta Euskal Herriari, bai eta beste Espainako Estatu berrak herrialde guztiei, gudan kendutako beraien eskubideak eta askatasuna berriztatzen ez zaien artean, edo Euskaditik bildur-giro gogor hau uxatzen ez den artean. Izan ere hor ditugu azken ezaguarririk. Santurtzin, preso guztientzat askatasuna eskatuz, hildako Normi eta inolazko zigorrik gabe askatasun osoz, gure lurretan ari diren eskuindar taldeek egin duten Pertur abertzalearen sekuestrazioa.

Benetako amnistia batek, aurreko garaian izandako askatasun-eza adierazten du eta jakina, gaur horretan agindako ekintza politikoz, lehen horretatik hartuak desegiten ditu. Gure kasuan, espetxetik irteten diran presoak, espetxe-bide izan zuten egoeragisa berdintsuan aurkitzen dira, gizonaren eskubide orokorrak erabiltzean berriz bertara joateko arriskuak. Beraien egoera, oraindik hestuagoa egiten da,



patutako eskuindar talde horik, inoren bildurrik
 eta askatasun osoz, hemen etxeak erretzen eta
 norbait hiltzen edo nahi dutena egiten eta nahi
 duten modura jokatzeko, inor oraindik espetxeratua
 dela izan ikusiz.

Gainera, gure ustez, askatasun kaskarrenetako
 batek herri gehienaren eskabideak eta gogoak
 eskatzen du eta Amnistia oso hau, sarritan
 ugarituz eskatu izan du herriak. Horregatik, Amnis-
 tia, edozein erregeren edo gobernuren eskuzabaltas-
 una edo kupida baino sakonago zerbait dela eta
 gaur, Amnistia osoa, behar-beharrezkoa da demo-
 krazia hitza erabiltzekotan.

Egoera honen aurrean, guk euskal preso poli-
 tikoaren senideok, beste behin ere, askatasun-ezetzko
 eta bildurretzko egoera hau aldatzea eta presoak eta
 herbesteratuak askatasun osoa lorturik, bildurrik ga-
 be bizi ahal izatea eskatzen eta beharrerazten dugu.
 Gu, hori lortu arte, eten gabeko burruka egiteko as-
 motan gara eta Herriari ere dei egiten diogu, ixildu
 gabe, Amnistia oso-oso lortu arte, gure preso eta
 herbesteratu guztiguztiak benetako askatasuna esku-
 ratu arte, eta lenetik botatakoak berriro hartuak
 izan arte, burrukari jarraitzeko eskatuz.

Bilbon, 1976-70 Irailaren 15-an



GAZTAINA ZIMELAK

Duela bederatzí edo hamar hilabete, Madrilén,
 TOpeko karrejo itsuian zehar genbiltzala, garai
 hartan (Franco jauna bere azken arnasaren zorian
 hamaika zehar garaiari nagokio) agertzen ari
 zirenak ikusiz eta gerotxoagokoak sumatuz,
 TRIUNFOren zuzendaria honelaxe nintzaion:
 "Laister ikusiko duzu: norbaitek frankista bat idon
 nahi baldin badu, Diógenes agure zaharra beza-
 ta argizai bat eskuratuz, kaleetan gora eta behera
 ibiltu beharko da".

Barre egin zuen, baina berealaxe entzun nion
 zantzunak adierazi zidan guztiz ados zetorkidala:
 "Eta... norbait aurkituko ote luke?"

Arrezkero gertatu —eta gertatzen ari— direnak
 ere auriritzi hura egiztatu —eta geroz eta gehiago
 gertatzen— dutela ukatzeraino ez litzateke gaur
 egun, ene ustez, inor ausartuko. Alderantziz, hain
 gaur hori gauza nabaria, zeren denok gabiltza
 zientiariko lotsaz gorriturik: anitz gizon-emakume,
 berenok berrogei urteetan frankista zintzo izan di-
 rianak, izan direna izatea gaitik lotsaz beterik, lehen
 burrokerizat zeukatena orain beren burugainetik
 ihatu nahian ikusten baitugu. Aldaketa bikaina:
 frankistek urritzen ari diren era berebean dira gaur
 demokratizaleek ugaritzen.

Gai honetaz banatorkizue, ez da hori, inola
 ere, nik garai hartan etorkizuna aurrikusi nuela eta,
 beraz, gizon oso argia edo begizorroza naizela pen-
 tsaraztearren. Ez, ez nakar harrokeriak, argigoseak
 baizik; gauza bat aitortu beharrean bait nago:
 TRIUNFOko lagunari esan nionari garrantzi handi-
 ko zati bat falta zitzaioela. Orduan ikusi ahal izan ez
 nuen baina egun geroz eta nabariago dugun alderdi
 bat. Hor goian esandako "aldaketa bikaina" osa-
 tzen duela esan daitekeen gertakizun harrigarri bat,
 halegia.

Begira nola azalduko nukeen: frankistek urri-
 tzen eta demokratizaleek ugaritzen ari zitzaigun
 era berebean, agertzen ari zaigu, gaur egun, lurpe-
 tik, edo zerutik, edo... "abertzaleak", "euskal-
 zaleak" Herriaz "arduratuak" direla oihuka dabil-
 tzen (eta orain arte izkutan, inolako arriskurik
 gabe, epel eta lasai bizi izan diren) "euskotar" pro-
 betxolari sekulako mordo.

Zorionez —berrogei urteetako zori gaizto luze
 baten ondorio den zorionez, noski— herriak bere
 begiak zorrotzurik ditu. Hona hemen bere egaina-
 ezina den araua: "**Gaur** benetako abertzale nortzu
 diren jakiteko biderik badugu, denetarik egokiena
atzo nortzu ziren jakitea dugu". Eta arau honetan,
gaur horrek erraztasuna edo ta loria darama, atzo
 haiek odolezko zailtasuna, arriskua, heriotza...
 zekarren bezala.

Oraindik hurbil dugun kondaira pittin bat
 gehiago argitzekotan irudirik behar bagenu, "gaz-
 taina zimelak" aipatuko nituzke. Danborila, sutan,
 kirteneraino bero-bero zegoenean, gaztainak nork
 atera zizkion herriak ez du aiantzi, eta ez ere hain
 erraz aiantziko. Baina aiantziko balu ere, hor luke
 ezinbesteko seinale bat: "haiek" sasoiari **gaztainak**
ateratzen benetan saiatu zirenak, beren behatzak
 erreta, zauriturik daude.

Eta hortan du, gaztaina zimel epelak eskain-
 tzen datorkionari —bai "abertzale", bai "euskal"
 politikoa alderdia, bai "sigla" edo beste "sasiz-
 bait" dela— planteatuko dion galdera larria:
 la, erakutsi diezazkizazu, mesedez, zure behatzak".

Bernardo Arrizabalaga

EUSKAL HERRIAN

KATALUNIAKO BAIMEN GIRO HEMEN EZEZAGUNA

Katalan idazle adiskide batek gonbidaturik, Agorrilean astebetetz egona naiz Katalunian. Lagun horren bitartez Bartzelonako zoko-moko eta giro bereziak ezagutzeko parada ukan dut. Lehenago ere bertan egona nintzen, baina ez nuen, ez eta hurrik eman ere, hiria ezagutzen.

Katalunian aurpegi bat



Scala
Barcelona
restaurantes espectáculo

Le deseamos una feliz velada
May we wish you a very pleasant evening

Su maitre
Your maitre
y su camarero
Your waiter
estarán encantados de ofrecerles nuestros servicios
Will be delighted to attend your service requirements

HORARIOS 1.ª Sesión
Cena, baile y espectáculo de 20'15 a 00'15 h.
2.ª Sesión
Consumición o cena fría, baile y espectáculo de 00'15 a 3'00 h.
Especial domingos tarde
Consumición baile y espectáculo de 17'00 a 20'00 h.

No se permite efectuar fotografías o filmaciones...
Los dos espectáculos son siempre auténticos...
It is forbidden to make photos or film the show.

Alde batetik, harriturik utzi nau bertako "askatasun" giro zabalak. Ez da sineste erraza Estatu berean eta lege berberen azpian gaudelarik, Kataluniako eta Euskal Herriko egoera bereziak batera nola egon daitezkeen. Gurean oztopo, traba eta debeku besterik aurkitzen ez ditugun arlo askotan, Katalunian, aldiz, liberaltasunik haundiena da nagusi.

Sexu arloan, hasteko, *El Molino* moduko porno-theatroska batetik *Scala* bezalako toki erotiko sofisticatu bateraino, era guztietako kabaretak aurki daitezke bertan legearen bedekazio guztiekin.

Are haundiagoa eta garrantzitsuagoa da ordea, politikan gertatzen dena. Hemen galerazten diren meeting eta politik hitzaldiak han eskuharkituz ontzat emanak izaten dira. Santanderren egiteko zen "Europar Herrien Bilera", gure artean textu soil soil ez iragarria, Bartzelonako kale-plazetan iberiar nazioen banderez horniturik ikus zitezkeen karteletan, gure ikurrina tarteko.



Euskal Herrian beste bat

Jose Antonio AGIRRE

(1904 - 1960)



Euzkadiko lehengo
lehendakaria

Bertako liburudenda batetan eresia da, kasu, hemen azaltzen den posterra. Lluís Companys, Errepublika garaiko katalan gobernuko lehendakaria, Francok fusilarazia, hor dago, bere herriko bandera eta guzti, edozein tokitan ezartzeko moduan. Zer gertatuko litzateke guk Jose Antonio Agirre edo eta Sabino Aranarekin beste horrenbeste egin nahi bagenu? PSUC-eko propaganda egiten zuten kartelak ere salgai agertzen ziren dendetan!!

Katalan bandera bera ere hor dago, edozein toki ofizialetan (Herriko Etxe gehientsuetan, esaterako) haizetara kulunka. Hemengo zenbait *vozerok* hortik aldarrikatu duten arrazoiak, hots, Katalunia-ko banderak historia zahar bat duela, halebria, ez du balio. Duela bospasei urte, orain katalan banderara *jator eta historikotzat* jotzen duten berbera, separatista zela eta, gurea bezain galerazia izan da Katalunian. Orain, ordea, hemengoa gaitzesten dirautenek berek hura onhartua dute.

Bartzelonako Herriko Etxean dauden agintari daktil-hautatuek katalan kulturaren alde hainbeste milioi ematen dituzten artean, guk aldiz, Euskal Herrian jai dugu. Telebistari dagokionez, berdin: han astero hamabi ordu ematen dira katalanez eta gurean, ordu erdixkatxo bat besterik ez.

Jokabide ezberdina, erizpide bi, permisibilitate selektiboa, bereizkeria... eta hori espainol guztiak lege aurrean berdinak direla aldarrikatzen dutenengandik.

X. Kintanak

P.N.V ulergaitza

HERRI XEHE MINTZO

— "... Enian uste erraiten ziela, Aitunen semek gezurrik"

— Baina, hik ere hobe huen, usten izan baldin bahuen.

Garai bateko gertakizunak gauregundu zaizkigu euskaldun xeheoi; bere burua abertzaletzat jotzen duen herri arrunt, xeheari.

Haurzaroan dotrinak irakatsi zigun "Gezurra zer den"-ez gainera, beste moetakorik ere ikasi dugu azken garai honetan. Partido Nacionalista Vasco-ri galdetu bestela. Horren berri bai ote duen ustetan gaude. Bederen, ulergaitza deritzagu bere politik jokaerari. Hori bai! Euskaldun herri xehe gara; eta agian, Errepublika garaitik eta frankismozko berrogei urteotan hainbat politik lan egin eta politik esperientzia jaso duen alderdiaren estrategia edo jokabidea, euskaldun arrunton adimenaren goitik dago, eta horregatik beharbada ez diogu gure P.N.V.gazteari zenbait politik joku konprenitzen.

"Punto y Hora de Euskal Herria" aldizkarian irakurria dugu Arabako Gasteizen, duela guti, egin zen mitinaren berri eta honen inguruan izan zen kontu zahar: Abertzale eta ez-abertzale diren alderdiak mintza behar ziren. Abertzale alderdi batekin (E.H.A.S.), besteren batek ere (M.C.E.) ezin azaldua ukan zuen. Hori ikusirik, E.K.A.-k eta E.S.-k aplazamendua proposa omen zuen. Zer den demokrazia eta leialtasunezko joku garbia ezagutzen zuten. Baina proposamendu hau, gutxiengoan egon arren, beste hiru alderdi politikoengandik arbuatua izan zen. Eta noski! Hau egiteko eskubide osoa zuten, nola ez! Baina gizalegea? Beno, oraingoz trapu zaharretako armarioan sar dezagun gizalegea. Berrartzeko beta ukanen dugu.

Horrela gauzak, lasai eta bakarrik aski mintzatu ziren hiruok: P.N.V., P.C.E., eta P.S.O.E. (Espainiol, oraino bederen, "uste" dugu). 1936ko Estatutoaren alde aldarrikatu ziren hiru P.P.P.-ok (Oharra: P sigla, gaztelaniazko Partido da)

EUSKAL HERRIAN

Eta orain, gure, herri xehearen, aitortpena dator. Euskal jende arruntaren ulerpen gaitasunetik at dago, P.N.V.-k, 1936ko Estatutoa defenda eta aldarrika dezan.

Estatuto honek Nafarroa kanpoan uzten du, osotara kanpoan, Aragoi bat antzo. Eta Euskadiko euskaldun erakundeek eta alderdiek, Nafarroaren egoitza, izateā, Euskadiren barrenean dela borrokatzen eta ikusten baldin badute, nola daiteke bere burua euzkotartzat (irakur: euskadun) eta Jeltzaleztzat (guti gora behera irakur: abertzale) jotzen duen P.N.V.-k, euskaldunen kontrako jokaera egin dezan eta haren herrialde batentzat ondagarri datekeen estatuto bat lor nahi izatea.

Hitzetan gauza bat, ekintzetan beste bat, ala? "Enien uste erraiten ziela..."

Herri xehearen uler ezina!

Bai, esan dezakete, Historian zehar P.N.V.-k eraman duen bidea estatuto honen lorpenetik iragaiten dela, hiru probintzitako, sekulan ez dezaten esan Euskadiko, herbesteratu gobernuan egoteak mugatzen duela; historik arrazoiek lotzen dutela; etabar, etabat. Baina, beti kontu zaharrekin ibili behar ahal duzue?

Espainiako Errepublikaren gobernuak gerra laguntzaren truke eman zuen autonomi murriztuarekin, hain zuzen ere garai hartarako urri eta etsigarri zena, nola atera zaitezke "Eusko Aberriko" plazara, isilaren eta nagiaren sakelean hainbeste denporaz ihartzen edukirik duzuen 36-ko Estatuto honekin? Geu, herri xehea, azken hamasei urteok lekuko, ez gara zuen sakela berberean egon, ez gaude iharturik, ez murrizturik, desioetan eta itxaropenetan bederen.

Hego aldeko lau probintziez (lau dira lau) eta Ifar aldeko hiruez osaturiko Euskadi baten desio eta itxaropen hezeak ditugu. Baina, arren, 36-ko Estatuto moduko estalgarri adabakiturik etzazue ezar herri xehearen nahimen eta adimen-ez oso jakitunetan.

Baina, otoi P.N.V, gure Herria zatikatu nahi duen P.C.E. eta Filipito Takatunero hoiei, ez senide eskurik eman hain ximpleki, ez lehortu historik konpromezuen eskuialarekin herri xeheak hoiei botatzen dizkien histuak. Ez, otoi, lotsagarri da zuentzat kanpotarren aldera, etxekoen aldera baino joera handiagoa uka dezazuen.

Lotsa ere, zinezko gizalegearekin batera, trapu zaharretako armarioan sartuta dago.

Beste aldetik, oso normal deritzaigu aipatutako puntu hoiek onhar eta burruka ditzaten P.C.E.k eta Filipitotarrek. Zaldibiko herria euskaldun ez dela ere defendatuko lukete alderdi hauek, nonbaitetik hartarako agindurik etorriko balitzaie. Beraz, hainbat E ikusten dugu egun baztar guztietan ezen, P.C.E. kasuan, bere gain duen E horrek zer esan nahi duen ez dakigula, Espainia, Euskadi, ala Ekuador

Zer esanik ez P.S.O.E.-ri buruz. Filipito Takatunek berea esan zuen Eibarren.

Eta horrela, eskutik hartuta doaz herriz herri, Gasteizen antzo, hiru probintzitako, beren hitzetan Euskadiko, euskal gobernuaren hiru partiduok "Al corro de las patatas" jostatzen.

Euskadin edozein suertetako alderdi eta mugimendu politiko larretzen da. Aski zola ugaria du gure larre, gure Euskadi zatikatu honek. Horregatik, bereizkuntza garbi bat egiten du hoiekin herriak. Batzuk espainolistak eta besteak abertzaleak dira. Hirugarren moldekorik sortua ote zegoen ustetan gaude jeltzaleak.

—Herri xeheak etzien uste, erraiten ziola etxeko seme batek gezurrik.

—Hobe zien uste izah baldin bazien.

Halaere, usteak eta politik jokuak berraldatzeko garaiez gaude, denok. Zeren, inon euzko zalerik aurkitu badugu, Euzko Alderdi Jeltzalean izan da.

Ale



ERDARAZKO "EUSKAL" ALDIZKARIEN INGURUAN

Gaurko egoera sozolingüistikoa kontutan harturik, euskarari holako aldizkarie o/o 30 bat eman beharko litzaioke, irakurleak gure hizkuntza ikastera pixkanaka bultzatuz. Eta euskararen egoera normaltzeko, behar beharrezkoa da hor ere kultur eta informazio hizkuntza gisa erabiltzea. Hortaz, aldizkariaren sailburu guztiak bi hizkuntzatan ezarri eta zerbaki batzutan indistintuki, sail batzu euskara eta beste batzu erdaraz agertu beharko lirateke. Editorialak, nazioarteko politika, etab., beraz, euskaraz tratatu beharko lirateke aldizka, hain maite omen dugun geure hizkuntzari txokoxka bat utzi gabe. Zeren, Suarezzen deklarazioengatik jantziak urratu dituzten batzuk, gero, praktikan, ez baitute ematen harengandik hain urrun daudela, fruituak lekuko.

ALDIZKARIEN "INDEPENDENTZIA"

Antza denez, euskal irakurleok tontotzat edo gauzkate norbaitzuk. Beren burua "Revista Independiente"tzat agertzen diguten batzu, nik dakidalarik, ez dira hain independente. Bai GARAIAren eta bai BERRIAK-en atzean zeintzu talde dauden mundu guztiak dakien zerbait da. Horrexegatik hobe zatekeen, nik uste, gezur biribil eta nabari horrekin irrigarri gelditzea baino deus ez esatea.

PUNTO Y HORAK, agian denetarik independenteena denak, ez du horretaz inoiz ezer esan eta, horrexegatik, hain zuzen, irakurlegoaren aldetik ongien ikusia da.

Aldizkarien ideologi independentzia, noski, zerbait fiktizioa izaten da komunzki, eta ez dago zergatik harritu. Talde bakoitzak eskubide osoa du bere aldeko politika bat eramateko, baina gauzak nahasten eta desitxuratzen aritzea, aldiz, beste gauza bat da. Zein nor den esatea oraingoz esatea komenigarri ez bada, guttienez, gezurrik ez esan.

Eta ideologi independentziaz aparta —edo, nahiago baduzue, beronekin batera— diru independentzia ere ba da. Eta gaur egun zenbait aldizkarik ez daramate oso joko garbia, ez dute konkurrentzia leialik agertzen. Zeren atzean alderdi indartsu baten edo batzuren sostengu ekonomikoa dutenak

eta bizirik irauteko beren salmenta hutsekin kontata bizirik irauteko beren salmenta hutsekin kontatzen dutenak ez daude, inola ere, egoera berean. Batzuek, iraungo badute, beren produktua nahiz eta nahi ez saldu beharko dute. Besteek, oro gal ere, atzeko taldeen hondoekin, luzaro segitu ahal dute publikatzen. Eta hau argiro dago ez doala konkurrentzia zintzoaren onean.

Aurreko ANAITASUNA batetan Joan Altziabarrek artikulu mamitsu bat eskaini zigun. Ez noa ni hark hain ederki esandakoak hemen berresatera. Zenbait gauza gehitu edo eta osatzea, ordea, interesgarri iruditu zait.

EUSKARA-ERDARA ARTEKO PROPORZIOA.

Guti da, oro har, gure erdarazko "euskal" aldizkariak euskarari eskaintzen diotena; orain arte behintzat. Honetan —eta paradoxatzat hartuko dukete norbaitzuk berau— BERRIAK dateke arlo honetan aurrerazaleena eta euskaltzaleena. Ba dago beste puntu okerrago bat, gainera. Euskarari **txoko bat** eskaini ohi zaio, museoko pitxi bat balitz bezala. Honetan folkloristena, ene ustez, GARAIA da. **Emakume, Batasuna, Elebitasuna** eta gisa honetako hitz asko tituluetan eta gero artikulu osoak erdaraz. Behialako "el lendakari le dijo a las emakumes del batzoki que los gaztetxus sacaran la ikurriña..." xelebre eta nigargarri hura dakarkigu gogora, eta gaurko euskaldunok ez dugu beti erdaraz aipatzen den Euzkadirik nahi, erabat herritar eta euskalduna izango den Euskal Herria baizik.



Erdarazko "euskal" aldizkariak alde ona ba dute...

EUSKAL HERRIAN

...baina txarra ere bai

PUBLIZITATEAREN ARAZOA.

Hauxe da, Altzibarrek ongi dioenez, arazorik larrienetako bat. Publizitatea aldizkarien finantza-biderik inportanteena izaten dela ez da sekretu bat inorentzat. Honetaz, Euskal Herriko merkatariek publiko "abertzale" agana heltzeko, lehen **Z.Argia**, **Anaitasuna** eta **Goiz Argi** bazitutzen, orain beste bide zabalago, irakurtzeko errazago eta egokiago batzu dauzkate erdarazko "euskal" aldizkari berrietan. Honek, jakina, luzarora izugarritzko kaltea ekar diezaietke euskarazko euskal aldizkariari. Aldizkari berrietan erdaraz egindako publizitateak Euskal Herriko merkatarisi "irakurle abertzaleekin" kunplitzeko era eroso bat eskintzen die, euskarazkoa baztertuz. Bide batez, bistan da, euskarazko agerkariari publizitatea eta, beraz, finantziabide bat lapurtzen zaie.

Honek dukeen soluziobide bakarra, nik uste, hauxe dateke: erdarazko euskal aldizkarietako zuzendariak beren bezeroei beren publizitatea euskaraz —edo eta bi hizkuntzatan— ezartzeko "kontseilatzea", irakurleek horrela hobekiago ikusiko dutela esanez.

Euskal irakurleak, bestalde, portaera ezberdinez juzkatu behar ditu iragarkiak erdaraz publikatzen dituzten merkataletxeak, eta, gure hizkuntza zapalduari laguntza emanez, euskaraz argitaratzen dituztenak. Eta, noski, kontsekuenteki obratu.

Honek euskarari merkatal munduan sarrera garrantzitsu bat eskaintzeaz gainera, euskarazko aldizkariari modu on bat emango lieke merkataletxe horietatik beren horrialdeetan erdal-euskal aldizkarietako euskal publizitate hori eskuratzeko.

Beste bide bat, egin beharrekoa gainera, hauxe litzateke, erdarazko euskal aldizkariak euskarazkoei "dohainik" publizitatea egitea.




Berau egiten ez den artean, nik uste, konkurrentzia oportunistak eta diglossikotzat hartu behar dugu euskaldunok agerkari berriak geure orain arteko euskal aldizkariari egiten diotena. Abertzale-tasuna sentimentuzko zerbait baldin bada, hertzale-tasuna, aldiz, praxisean froga daiteke.

Xabier Kintana

Jadanik

**105 bulego ditugu prest zuretzat
eta, gainera, 50 zerbitzu ezberdin
baino gehiago, guztiok zuri
eskaintzeko.**

**Baina, hala ere, gehiago jaso nahi ditugu
Eta lortuko ditugu.**



**CAJA DE AHORROS
VIZCAINA**

Hemen irabazi guztiak zuretzat dira

EUSKAL HERRIAN

BILBOKO UNIBERTSITATEAN ERREKTOREA AUKERATZEN



Hurrengo ikasturtean errektore berria izanen dugu Bilboko Unibertsitatean. Bai politika eta bai Hezketa aldetik begiraturik, oso garrantzizkoa da izendapen hori, errektoreak gidatzen baitu zuzenki 10.000 bat unibertsitarien lana, eta bera baita Bizkaiko Hezketa antolamenduaren buru. Hori dela eta, interesgarri delakoan, errektore berria izanen datekeen pertsonarekin eginiko prentsaurreko elkar hizketaren laburpena prestatu dugu, eta hemen aurkezten dizuegu.

Jakina denez, Bilboko Unibertsitateko errektorea izan den Justo Pastor jaunak, utzi egiten du bere lana, edo hobeki esateko, utzi egin behar du. Eta hori, ez jendearen oihu eta kexei kasu eginez, legearen arauera joan behar duelako baizik, hau da, eta konkretuki esanez, adinez zaharregi delako. Horrela, bada sarri desegokiro erabilia izan den postu garrantzitsu hori, hutsik geratu izan da; eta bete egin behar zen hutsune hori.

Horretarako, eta gehienbat ohizko goitik-beherako bidearen hildo sakon eta eginetik, Unibertsitateko Batzarrea (Klaustroa) antolatu izan da, postu hori bete dezaketen hiru pertsona aukeratzeko. Batzarre horren inguruan demokrazia itxura gorde nahi izan duten arren, ba dirudi, zerbait arraro ere ba dabilela tartean, ikasle eta irakasle ez numerarien ordezkariak Batzarrea egiteko aukeratu den egunaren aurka mintzatu direlarik. Hauen eritziz —eta J. Pastori zuzenduriko gutun batetan irakur daitekeenez— Batzarrea opor garaian hospatzean, problema gogorak sortzen dira, kandidatura guztiak ezagutzeko eta beren errepresentatuekin haik eztabaidatzeko. Bestalde, gutun berean, Bilboko Unibertsitateko Klaustroaren errepresentatibitate falta salhatzen dute.

Dena dela, irailaren 20an hospatu zen Klaustro hori, eta bertan hiru pertsonaren izenak aukeratu ziren, Madrilera bidaltzeko. Gero, azken aukerapena eta, bide batez, izendapen ofiziala Madriletik etorriko da, agintariak erabakitzen dutenaren arauera. Ba dakigu: "Apezak azken hitza bere".

Bilduriko botoen arauera, ondoko hiru jaunok izan ziren hautatuak: Ramon Martin Mateo, Joaquin Aginaga eta Justo Mañas. Edonola ere, bakoitzak izan zituen botoak ikusirik (58, 34 eta 27 errespektiboki), ba dirudi, errektore berria Ramon Martin Mateo jauna izanen dela. Izan ere, horrela ezagutu eta aitortu zion Aginagak berak, hauteskundearen emaitza ezagutu ondoren, errektore moralaz zela esan zionean.





MARTIN MATEO JAUNA PRENTSAREKIN

Gauzak horrela, eta Madrileko izendapenari aurreratuz —Martin Mateo jauna ez baita oraindik ofizialki errektore— ikasleen ordezkariak jendeaurreko eta prentsaurreko elkar hizketa bat antolatu zuten irailaren 23an, eta bertara gomitatu ninduten ANAITASUNAko idazle bezala.

Hiru puntu nagusi erabili ziren elkar hizketa horretan: gestio demokratikoa, gestio ekonomikoa eta Euskal Unibertsitatea. Ikus dezagun, bada, gai horietan esandako gauzen laburpena.

Hasteko, errektore izateko den jaun honek, besteak beste, erretoretan zabalagoa eman zigun, aurreko errektoreek emanikoa ez bezalakoa. Zuhurki mintzatu zen, demokraziara bidean abiatu nahi duela adieraziz. Esan zuenez, bere aldetik askatasun osoa egonen da egintza kultural, politiko, ... guztietarako, hots, gure Unibertsitatean askatasun demokratikoak deiturikoak egon daitezkeen saiaturako da. Eta hau —beti berak zionez— ez da politik biologikoki horrela pentsatzen duelako, Unibertsitatearen funtzionamendu onerako ere garrantzizkoa delako baizik.

Ikasleen sindikatu ilegalaz, legalki ez lezakeela horren esan zuen; baina era berean, sindikatu bat sortuko balitz, ilegala izan arren, harekin nola edo alako harremanak ere izan beharko lituzkeela aitortu zuen.

Gestio demokratikoarekin bukatzeko, estatu-tu berriak egin eta berehala, bere kargua Klaustroaren eskuetan utziko lukeela esan zuen.

Gestio ekonomikoa gai harturik, ez zuen problemarik egin, kontabilitate liburuak jendearen aurrean agertzeko. Esan zuenez, zenbait sozial arloren kudeantza —kafetegiak, jantokiak eta abar— ikasleen eskuetara pasa daitezke. Eta modu berean, ikasleek parte handia hartuko dute beken eta diru laguntzen banapenaren arazoan. Unibertsitateko Kudeantza antolamenduari egin zaizkion kritikei buruz, txeko bat eginen zaiola iragarri zuen, kudeantza ahalik eta ondoen hobetzeko asmoz. Ohar gisa, lerro hau idazten ditudala, Unibertsitateko kudeatzaile izan den Azpitarte jaunak bere dimisioa aurkeztu duela jakin ukan dut.

Elkar hizketarako azken puntua interesgarria izan zitekeen, motel geratu bazen ere: Euskal Unibertsitatea. Martin Mateo jaunak ebazpen konkreturik prometatuz ez bazuen ere, bere eritzi batzu azaldu zizkigun.

Euskararen koofizialtasuna gauza garrantzizkotzat jo zuen, koofizialtasun erreala behar genuela azpimarkatuz. Euskarazko ikastaldiei buruz, trabak ipini ez zituen arren, ez zuen laguntzarik eskaini; zioenez, arazorik latzena dirua lortzean datza.

Euskal Herrirako (Hegoaldea bere pentsamenduan) unibertsital distritu bakarraren komenientzia aipatu zuen, baina honetan indar politikoei pasatu zien neurri handiengan presioa egitearen erantzunkizuna. Gure Herrian, eta Bilboko Unibertsitatean prezeski, falta diren fakultate batzu lortzearen garrantzia ez zen utzi alde batetara, baina edonola ere, horretaz bere ahalmenen mugatasuna adierazi zigun. Hau dela eta, Euskal Herriko aberats, oligarkia, dirujabe, eta entpresaburuen erantzunkizuna agerian geratu zen; eta bide batez, prentsak, irratiek eta antzekoek egin ditzaketan kanpainen garrantzia seinalatu zuen.

ZER PENTSA?





Ba dago zer aztoraturik Bilboko Unibertsitate ia jaioberri, baldres, eskas, ... honetan! Are gehiago, gure etorkizunerako eduki dezakeen garrantzia kontutan edukirik.


Guk geure aldetik indar egin nahi dugu, goian aipaturiko puntu askotan. Bestalde, ez gaude inondikan eta inola ere ados orain arte eraman den bidearekin. Eta hori konpondu behar den arazo bat da.

Bitartean zer pentsa errektore berriaz?

J. R. Etxebarria

politika stop






danona

KOOPFRATIBA

- *haltzarigintzan
nugusi
- * aukera
guztietako
- * logelak
- * egongelak
- * modulu gisa
tajaturiko
haltzariak

Azpeitia
Gipuzkoa
tel. 812840



AUZMENDI Jostun on baten eskua. Vergara 3

NEKAZARI KLASE SOZIALEN

3.a.1.— Nekazari ttikia.

Gaurko gizarte kapitalistan langilearen esplotazioa tresna askoren bidez egiten da eta sistema bat dago esplotazio jori burutzeko antolatua.

Nakazaritzan ere horrelako zerbait gertatzen da.


Eskema klasikoan, langile klasea osatzen dute beren esku indarra besterik ez dutenak, laneko bitartekoak eta produktua jabe pribatuaren eskuetan gelditzen direlarik. Jabeak alokairu bat ematen dio langileari bere lanaren truke. Hau da, langileak bere lana saltzen du eta noski ez dauka beste bizibiderik, plusbaliakin jabea geldituaz.

Nekazariaren kasuan, sarritan edo gehienetan lan tresnak bereak ditu eta ba dirudi produktua ere berea dela. Horregatik nekazari xehea ere ez da langiletzat hartzen burges ttikitizat baizik, nahiz eta aitortzen den zapalduetako gizataldea dela eta inoiz ez zanpatzailea.

Guk, ez dugu eskema hori hautsiko, nekazariaren esplotazioa agertuko baizik. Gainera gaurko nekazari ttiki gehienak bihar langile izatera bortxatuak daude.

Nekazariaren dependentzia eta esplotazioa bi era nagusitara egiten dute instituzio finantzazailerik, industrial eta urbanoek:

1.— Merkatuan guztiz sartu araziaz beren erosketetarako (haziak, ongarririk, belar eta intsekt hilkariak, giza janariak, pentsuak, makinak...) eta beraiek produktutakoak saltzeko margena berek ezarriaz askotan ezin bizira edo industrira bultzatuaz.



BANAKETAN

2.— Merkatu eta bitartekoez menpean eta dependentzia osoan ezartzen dute nekazari ttikia, bere inizatiba itoaz, inongo agintarik gabe.

Kontsumoaren bidez ere esplotatzen da nekazaria.

Lehen esan dugun bezala, nekazaria geroz gehiago da lehen materien eskaintzaile, industri batzuk tranformatzen eta komertzializatzen dituztelarik produktuak. Industri hauetan gainera, inon baino nabariago dira multinazionalak, beraz, zera esan daiteke geroz eta haien menpeago dela euskal nekazaria.

Bere kontura lan eginaz den esplotazio familiarra aipatutako egituragatik, objetibuki langile klasearen mailan gertatzen da, nahiz eta batzutan bere patrimoniotoxoaren pixua antzematen zaion.

Hauek beren burrukan langileekin bat etorri behar dute, hauei bezala, sistema kapitalistak ez bai die inolako irtenbiderik eskaintzen; langileak bezain zapalduak dira eta interes berdinak dituzte kapitalismoa botatzeko.

Estatu monopolistaren esplotazioa ere gero eta nabariagoa da nekazari ttikientzat langile izate-ra bultzatuaz nekazari hauk. Antimonolistak dira beraz.



3.a.2.— Nekazari handiak.

Laburtzearren, nekazari ttikietatik handietara pasa gara eta behar bada, zera esplikatu behar dugu hau, halegia, gure ustetan nekazaritzan halako prozesu bat dagoela: handiak herdikotu, herdikoak ttikitu, eta ttikiak langile soil bihurtzearena.

Handien eta herdikoen artean ordea edo latifundio izaten jarraitu edo ta kapitalista esplotazioa ipinirik jarraitzen dutenen jokabidea dago eta hau erabiltzen ditugu nekazari handiak.

Oso handiak ez ba dira monopolien menpean egon ohi dira.

Kapitalizatzeke, kreditoak lortzeko posibilitate gehiago dituzte.

Latifundioen kasuan, nekazaritza estensiboa egiten dute produkzio bolumen handiak lortuz eta era horretan irabaziak gelditzen zaizkie.

Askotan hauen eta nekazari ttikien interesak kontrakoak dira hauek produkto exzendentarioak sortzen bai dituzte (garia,...) eta administrazioari salneurriak igoarazi ganaduzaleen kaltetan.

Hauk nekez batuko dira nekazari ttikiekien egitura aldatzeko oraingoa oso ondo bai datorkie.

Entrepresa kapitalista modura antolatuta jokatzen dutenek, berriz, industrializazioan eta komertzializazioan gero eta interes zabalagoak dituzte.

Hauk ere antimonopolista izan daitezke, baina handienak batipat monopolioen kontzentrazioaz irabazten irtetzen dira, askotan berak ere partaide bai dira.

3.b.— Urbanizatutako lurren jabeak.

Hauk gehienak nekazariak bide ziren baina gaur ez dira. Industrian egiten dute lana eta beren lurrak utzita edo errendimendu kaxkarrean dauzkate gehienek nahiz eta batzuk ahal dutena aprobetxatzen duten. Etxagile edo industrial bat erostera noiz etorriko zai daude.

Hauk ez daude baserriak ematen edo emango duenari begira baizik eta toki egokian lurralde batzuk dituztelarik, aberastea itxaroten dute. Langile patrimonioa ditugu hauk, interes kontrajarriekin.

Nekazaritzaren kaltetan doa hau, zeren sarrirainan soro eta belardi ederrak piñu sartzen dira hauzkoak utzi ordez eta nahiago dute sasiak hartuta edukitzea batzutarako errentan eman baino.

Beste alde batetik, langileriari komeni zaion lur urbanoen sozializazioaren aurka daude, beren interes espekuladoreen kaltetan bai doa. Nekazari askori gelditzen zaien itxaropen bakarra hauxen dela, errenta da.

3.c.— Industri-nekazari langileak.

Mota hontako langileak dira Gipuzkoan eta Bizkaian gaurko nekazari gehienak. Ez erabat nekazariak dira, eta ez industri langile hutsak ere, baserria bai dute.



Hau dirudienez belaunaldi batetako egoera da, hauen seme alabak kaletar huts bihurtuko bai dira.

Baserriko gazte askok beren lantokiko irabaziaz osorik berentzat gordetzen dute, baserrian bizi eta janaz egiten duten lanaren truke. Honek gazte hauen konformismoa dakar, diruz nahiko ondo bai dabilta (kaletar hutsak baino hobeto) ala eta guztiz, ba dira baserriar langile burrukalariak.

Baserriko maiorazgo asko beren gazte denbora baserrian pasa eta gero joan dira fabrikara, batere prestakizunik gabe lanik gogorrenak egiteko prest. Gainera lehengo ideologi finkatuarekin: Agindutakoa egin, emandakoa hartu sumisio oso batetan beldurraren menpean seguritate bila. Hauk saiitzen dira beren seme alabak ikas dezaten.

Aukera une batetan langilediarekin bat etorriko dira hauk beste edozein klase sozialekin baino lehenago, bai monopolioen aurka eta bai sozialismoaren alde, eta, noski, giza talde hau garrantzizkoa da benetan.

Nekazari produktuen transformazioko industri eta komertzializazioko langileak industri langile bezala jotzen ditugu.

Nekazari instituzioetako tekniko asko sistema honetaz etsita daude eta hontzat hartuko luketela uste dugu, sistema sozialista bat nekazariak langile klasearekin bat egitea onhartuz.

4.— NEKAZARI EGITURA GIZARTE SOZIALISTA BATETAN.

Problema ezberdinak aipatzen joan geranean egin behar batzuk ere aipatu ditugu konponbide bezala.

Zaila zaigu, oraindik erabaki gabeko sozialismo batetan nekazari egitura nolakoa izango den edo izan behar duen finkatzea.

Aurrez diogu, hau guztia oso probisionala dela eta esperientzia joango zaigu irakasten sartzen joan behar dugun aldaketak.



EUSKAL HERRIAN

Hurrengo puntuan aipatuko dugun bezala, gizarte sozialista lortu bitartean ba dira pauso batzuk eman beharrezkoak, biharko ere onuragarri izango zaizkigunak.

Azken pauso bezala proposatzen ditugun zenbait puntutan, batzumentzat laburregi geldituko gara eta beste batzumentzat urrunegi joango gera, eta hori, beharbada, puntu guztietan.

Ikusi dugunez, kapitalismo sistimak ezin diezaiokoe irtenbiderik eskain nekazaritzari eta ezerk eskaintzekotan gizarte sozialista batek eskain diezaiokoe.

Nekazari guztiak ez dira jarrera hontakoak eta batzuk objetibuki ez dira inoiz izango ere, baina hauen interesak (nekazari handienek) ez gaituzte bultzatzen nekazaritzaz arduratzera noski.

Gure lana, zera da: bakoitzaren benetako interesa aurkitu eta konbikzio eta argitze lan bat egitea langile klaseekin bat etorri daitezkeenekin, gaurko beren ideologian oinarritu gabe geure jokabidea.

Nekazaritzak gizarte sozialista batetan beste sektoreekiko eta bere barruan berdintasuna behar du: Jakintzan, errazialitate, ekonomikoan, segurantzaz, erretiroan, bizitokian, bideeta, jolasleuta, jaita, gaixotegi eta, e.a...

Plangintza bat beharrezkoa da: lurrari probetxua ateratzeko, behar diren janariak sortzeko, gure ahalmenei zumoa ateratzeko, behar diren produkzio aldaketak egiteko, nekazari bizi kalitate egokia eskaintzeko. Plangintza honetan guztiok hartuko dugu parte nekazari, langile, komertziantek, eta inguruko eta mundu guztiko nekazari produktuen egoerakontuan hartuko litzateke hemengo posibilitateekin batean.

Ikastetxe egokiak prestatu beharko ditugu geure gazteria era honetan prestatzeko.

Nekazari esplotazio berri bakoitzean autogestioa izan daiteke antolamendurik egokiena.

Gaurko lurraren jabetza pribatua, emugatu edo desegin egin behar dugu baliakizunak arrazoinak ki probetxatzeko.



Gure nekazaritzaren arazoak egiturak eraigindakoak dira gehienak eta egitura aldaketak bakarrik konpondu ditzake.

Sistema kapitalistaren barruan nekazari irtenbidea aurkitzeko intenturik bortitzena baserri eta herri elkarteena izan da eta ekonomi azterketak diotenez luzarora begira nahiz eta aurrerapen batzuk nabaritu ez zaizkigu nahiko gertatzen sistema hontan. Baserri edo esplotazio bakartiarraren produktibitatea handixeagoa da dirudienez bai pertsonako eta bai Ha,ko elkarte hoietan baino. Bakarkakoengandik ez da antzematen produkzio azitzerik beraz. Ez dirudite bide egokia egoera honetatik ateratzeko. Pasadizoko formula bezala agertzen zaigu elkarte beste era batetara ezin konpondu daitezkeen egoeratan, baserriek ez aldegitarren hartutako jokabidea eta inoiz ez: konponbide bizi, indartus eta iraunkorra. Nola nahi ere gizarte sozialista batetan balio dezakela deritzaigu.

Baserriaren konponbidea ez dator baserri bakoitzari eskainia, sektorea aurrera irten dadin baserri edo nekazari gehienak kaleratu (bizibidea behintzat egin) beharko dute.

Gizarte sozialista batetan neurriak hartu beharko dira: produkzio egiturari, komertzio eta industri transformatzailerean interbenituz.

Egin beharrezkoak:

— Lur jostea edo lur-pusen konzentrazioa.

— Mendien komunalizazioa: produktibo bihurtuaz eta lehen ziran bezala udal edo kontzejuaren eskutan jarriaz. Zuhaitzak jarri dituztenak konpentsatu egin beharko lirateke.

— Hauzo lana potentziatu.

— Lur urbano guztiak sozializatu herriaren eskuetan jarriaz.

— Esplotazioak handitu: baserri posibilitate gabeak espropiatuaz edo erosiaz han diranei bizibidea eskainiaz, produkzio bakoitzerako neurri egokia lortuaz.

— Inoiz ez litzateke bizitokirik espropiatuko. Lurrak probetxatzen ez dituztenak, espekulazio itxaropenik gabe, prezio egokian saltzera berehala prestatuko lirateke eta erostea udalek eskualdeka, diputazioek egin beharko udalek eskualdeka, edota diputazioek egin beharko lukete, terreno hoik probetxa ditzakeen nekazari edo elkarteari eskiniar errenta baten truke.

— Laborantzan jarratzen dutenen lurrak berenak lehendik direnean horrela utziko lirateke. Maiztarrak balira espropiatuko egungo lirateke udalaren eskuetara pasatuz.

Kompensazioko mekanismo batzuk ipini beharko lirateke arriskuei aurpegi emateko, hauek garrantzi handia bai dute nekazaritzan.

— Nekazari esplotazio berriak behar dituzten kreditoak erreztasunik handienetan emanak izango lirateke.



— Mendien probetxamendurako plangintza batzuk egingo lirateke; zeinetan zer baso, eta zeinetan larretokiak, etab.

— Produktuen transformazioko industrializatzeko eta komertzializatzea, gaur kapitalista eta monopolioen eskutan dena, guztia espropiazio bidez kontrol kolektibo batetara pasako litzateke, kontrol honetan baserriarrek ere parte handia izanik.



— Ikerketa eta jakintza bidez lortutako teknologi aurrerapen guztiak, nekazaritzara ere aplikatuko lirateke teknika hobetuak nekazarien eskuan jarriaz.

— Baserriarrok botere politikoa izango dugu geuri eta euskal gizarte osoari degozkion erabakietan: Berreuskalduntzea, kulturizatzea, hirigintza, irakaskuntza, ekonomi politika,...

Honeraino, biharko nekazari egiturari buruzko proposamen batzuk. Problematikan sakontzeak aldaraziko dizkigunak, noski.

5.— SEKTOREAN EGITEKO LANA.

Bistan da agertu ditugun helburuak lortzeko gaurtik ekin behar diogula bidea urratzeari, ezarria dugun erara.

Gizarte sozialista bat lortzea ez da nekazarion egitekoa soilik eta Euskadin ez gara talderik garrantzizkoena guk ere geure parte izan arren.

Gaur, ez gaude sistema sozialista batetan, boterea estatu imperialista baten eskutan dago, gure bururak, herri eta klase zapalketa honetatik askatzeko izan behar du.

Sarritan, gure planteamentua, nekazaritzaz berridutean ekonomizista hutsa izan ohi da errentabilidate arazoa bakarrik aipatzen dugularik. Eta gaur baserriar edo nekazariok era askotara gaude zapalduak: giza eskubideetan, ekonomikoki, kulturalki, politikoki, ideologikoki, ..., eta zapalketa guzti hoietatik askatu behar dugu geure burua.

Gure alienazioa eta kontzientziarik eza, beharbada, beste sektore batzuz ere baino larriagoa

da eta sarritan honetaz baliatzen dira hurrupatzailerak. Hau kontuan hartu dezatela gu esnatu nahian guregana hurreratzen direnek.

Nekazariok geure barruan sarturik dauzkagu kultura burgesa: dependentzi zentzua besteak baino gutxiago ote garan irudipena, mingoztasuna eta kulpabilitate konplejua bazterturik sentitzen gara, geure etorkizuna ilun ikusten dugu ezkontzeko edo haurrak heitzeko, azken urten hauetan bizi izan ditugun aldaketa guztiek bildurtu egiten gaituzte, nolabait esateko lehengora ohituak geunden.

Maite dugu baserria, maite ditugu lurak eta abereak baina buruhaustea besterik ez dakarkigute.

Fidakaitzak gara edozer eskaintzera datorkigunarekin, hainbeste aldiz barre egin bait zaigu.

Geure arazoez jabetzen daukagu lehenengo eginbehar larria eta egunerokoa gainera.

Nola nahi ere egoera konkreto hontan, etorkizun, hobe bat bideratzen burrukan ari garen bitartean, hobe genezake gaurtik geure bizimodua, hortarako egiteko batzuk geure buruari ezarri:

a.— Epe motzera

b.— Herdi eta epe luzera.

5. a.— Epe motzera.

Gaurko nekazari

5. a.— Epe motzera.

Gaurko nekazari guztioi nekazaritzan bertan irtenbidea eskaintzea demagogia merke bat izan daiteke. Egin behar dena beterik da: zaharrei bizibide bat eskaini, gazte bokazionatuok nekazari on bezala prestatu, nekazari politika baten ideagile, egile eta errealizatzaile izan gaitezen, eta beste askori industri eta zerbitzu bidea eman.

Beste sektoreak nolabait nekazariok lehen eta orain egindako zorrak ordaindu beharrean dauden, justizia orokor bat lortuaz.

Eskakizun batzuk ba ditugu, beraz, baina aurrez esplikaiziotxo bat eman beharrean gara.

Oso zabaldua da gure artean honako pentsakizun ihau: "Gure produktuen prezioak baxuak dira baina kanpoan baxuagoak direnez eta konpetituzio behar denez, kostuak nola jaitsi pentsatuz joan behar dugu, prezioen igotzeak ez dakarkigu konponketarik".

Pentsakizun honek ito ditu gure ustez azkenaldi hontan nekazarion errebindikazio burrukak. Hau gainera sarritan nekazari zerbitzari direla dioten kontsejua da. Gure ustez, zerbitzu eskasa eskaintzen zaigu horrela laborariok. Bistan da kostuak eraitsi egin behar direla, hori erakutsi beharrik ez daukagu, hori ba dakigu guztiok, nola eraitsi irakastearen laguntza behar dugu, baina soldata bat irabazi behar dugula ere uka ezinezkoa zaigu edozein lanqilori ukatzen ez zaion bezala.

EUSKAL HERRIAN

Horrengatik, benetako egitura eta errazionalitatea nahi dugunok prezio juxtuak lortzen ere saiatu eta burukatu behar dugu errebindikazio mailan ere ihardunaz.

Beraz hau errebindikatzen dugu:

- 1.— Oferta kontrolatzeko posibilitateak, prezio juxtu batzuk izateko, eta tartekotzairen kontrola.
- 2.— Seguritate sozialean berdintasuna. Nekazari ttikiak langileak bezala ordaindu eta eskubide berdinak izan.
- 3.— Azterketa, asesoramentu, e.a.—etarako komeni zaizkigun instituzio autonomoen sortzeko erraztasunak eta finantziazioa.
- 4.— Osasungarri diren produktuen kanpainak komunika bideetatik administrazioak ordainduta.
- 5.— Ikastetxe egokiak gazte bokazionatuak prestatzeko eta aldizka hauen formazioa osatzeko.
- 6.— Kreditu erosoagoak (merkeagoak eta plazo luzeagorako), bizi bidea (kamioak, argi-indarra,...) hobetzeko laguntzak.
- 7.— Geure interesak zaintzeko komenizaizkigun elkarteak sortzeko eskubidea. Berdin sindikato autonomo bat sortzeko ere, hala erabaki bageneza.
- 8.— Nekazari instituzio ofizial guztietan euskara dakitenak egotea gure eskakizunak atenditzeko.

Hainbat eskakizun egin genezake baina horik burukatzuz goazen bitartean, eginbehar konkretu batzuk hauk izan daitezke:

- 1.— Baserriar edo nekazari prestaketarako era guztietako ikastaldiak antolatu: teknika, kultura, ekonomia, politika,... irakatsiaz.
- 2.— Nekazari erakunde bat sortuz joan: zabalera, arazo ezberdinetakoak biltuz joango dena, beharbada, sindikato forma emanaz. Euskal nekazarien interesak zainduko dituen.
- 3.— Ekipo interdisziplinari bat sortuz joan: al-baitari, ingeniari agronomo, perito, ekonomista,..., baserriarrekiko kontaktoan eta haien zerbitzuan egongo dena eta haien zentzuzko prestakuntza.


5. b.— Herdi eta epe luzera.

Planifikazio egoki bat behar da, herriak egina, herriaren zerbitzuan, nekazariak berek bertan parte handia behar dutelarik.

Plangintza honen egitekoak eta helburuak hauk dira:

- 1.— Kontsumatzaileen beharrak erakutsi, eskaintza-eskaera berdintzeko kanpoko produktioa kontuan hartuz.
Nekazaritza prolema, desberdintasunak barne, mundu guztikoa da. Euskadiko nekazari egoera nolabait inguruko eta mundu guztiko egoerari lotua dago.

- 2.— Gaur produkzitzen dena kontuan harturik, zer produzi daitekeen eta behar lizatekeen erabaki behar da.
- 3.— Nekazari prestaketa oso bat egin behar da. Teknikoen laguntzak erabatekoa behar du izan.
- 4.— Inbestigazio lan gogor bati ekin behar zaio: eguraldia, arrazak, emaitzen kalitatea, ongariak,...
- 5.— Natura zaindu, atsedan leku egokiak prestatu.
- 6.— Gizarte sozialistan izango dugun lehen agertutako nekazari egiturara iristeko behar diren pausoak eman, auzoka, herrizka, eskualdeka, etab. baserriar batzarrak indartuz, erakundeak sortuz.



Hau ere kontuan dugu:

Beste sektoreekin batean, langileekin batipat, gizarte sozialista bat eraiki behar dugula, gizon guztiek berdinak izango direna. Hontarako, langile burukak ahal dugun neurrian babestuko ditugu eta saiatuko gara guretan haien kolaborazioa lortzen.

Bistan da transizioko une batetan, janari merke eta ugari izateak duen garrantsiarengatik sektorearen posibilitatea sozialismora bidean. Beraz, langile eta laborari kolaborazioa zaritzea behar beharrezkotzat jotzen dugu.

Kolonialismoaren hatzaparretatik geure buruak askatuaz gainerako herri atzeratu eta zapalduekin kolaboratu behar dugula askatasuna lorturik, gosea eta miseria gainditu ditzaten. Haietan bai da gaur nekazaritza nagusi, kolonialismoak hortara bortxatu dituelako eta gainera goseleku direlako.

Truke ezberdinak mundu zabaleko nekazari aurka jokatzen duelarik gero eta nabarmenago eta nazio aberatsetako soberakinak komertzio arazoarengatik botatzen diren garai hontan, munduko beste nekazariarekin bat gatoz eta ahal duguna ekitzko prestajartzen gaitzaizkie.

Herriarekin. Herriarentzat.



Caja Laboral.



**CAJA LABORAL POPULAR
LÁN KIDE AURREZKITA**

IBERIAN ZER

PORTUGALEKO "LIGA IBERISTA" REN AGIRIA

Portugal, mendetako koloniak galdu ondoren, Penintsula Iberikara begira jarri da berriz. Hobeto esan, jartzen hasi da, zeren oraindik pentsalari batzuren mezua eta gogoia besterik ez baita.

II. Gerrate Mundialaren garaian, Londresen biltzen ziren "Euzko Etxean" zenbait politikari "Comunidad Ibérica de Naciones" sortzekotan, eta beren asmoa "Aliatuei" aurkeztu nahian ibili ziren. Euskaldunen aldetik Irujo lizarrarra zebilen, portugaldarren izenean Cortesao sozialista Oliveira Salazar-engandik ihes egindakoa, Pi i Sunyer katalana eta Araquistain, PSOEko gaztelarra. Azkenengo honen zitalkeriak oso nabariak izan ziren.

Orain, ordea, Lisboatik datorkigu albistea, portugaldar gizon argi batzu urrunera begirako politika bat planteatzen hasi dira, eta beraien ustez, irtenbide bat, Penintsula Iberikako beste Herriekin, hots, Galizia, Euskal Herria, Katalan Herrialdeak eta Gaztelarekin, nazionalitate elkarte bat egitea litzateke. Ez, eta hau argi dute, Portugaleko Estatuaren eta Espainiako Estatuaren arteko batasuna, bost Herrien Elkartea baizik. Hara hitzez hitz zer dioten Ligaren Agiriak beren hizkuntzan: "O que todos exigem é que essa possível união se faça em termos de associação de nacionalidades — a portuguesa, a castelhana, a catalã, a galega, a vasca — e não em função de um Estado português ligado a um Estado espanhol. A liga Iberista está consciente de que uma ligação deste último tipo seria nociva á individualidade da nação portuguesa e por isso a rejeita".

Alde askotatik guretzat oso berri interesgarria dela uste dut. Gure Herriaren, eta era berean katalan eta galegoen onerako, portualdarren mezu horrek beste polarizazio bat baitakarkigu, betiko Erdiaren jirabira politikotik at.

Hara ondoren euskaraturik Agiri hori, eta bakoitzat ausnar beza.

D. Amaitermin

HIRITARROK:

Bost mendez mugak itsasatzeko lurraldeetan finkaturik izan ondoren, Portugal Europako lurraldeetara mugatuta aurkitzen da gaur Madeira eta Azores uharteak ez ezik —bertan ere askatasun bozak ere entzuten dira gaur— Portugaleko lurraldeak erdi-mendekoak dira. Hiru enperadoregoren ondoren —Asiakoa, Amerikarra eta Afrikakoa— Portugal bere europar mugetara bihurtu da, lehen mugen barruan.

Beste epeetan Goa, Brasil, Angola eta Mozambike "aberri" bezala izendatuak izan ziren. XIX. eta XX. konstituzioetan, "Nazioa" Portugalen banderapean zeudeh, europar, afrikar, amerikar eta asiarr lurraldeen batasuna bezala ikusi zen. Portugal "Miño hibaitik Timor"-era dauden lurraldez osatua zegoela esan ohi zen. Nazio interkontinental honen batasuna eta ezin-banatzzea zalantzan jarri zutenak —asko izan ziren— traidore bezala hartuak izan ziren.



Hau ikusiz, norik esan dezake orain asmo onez, "Aberri" konzeptua ez dela aldatzen, "Nazio" zentzuak garai batetako bitartea eta bere itxurapean egiten dutenen asmoak gaintitzen direlarik?.

Hala ere, orain antolatutako "Liga Iberista Portuguesa" Portugal Nazio bat denik ez du zalantzan jartzen. Bere nahia ez da Portugal iberiar nazio batetan urtzea, nahiz eta bere biltzarkide askok hau eginkor eta helburu bezala onhartzea. "Liga Iberista Portuguesa" delakoa nazionalista da eta abertzaletasun horren bultzakadaz, Nazio askatua, zorientsuago eta aberatsago baten bila dabil.

Nahiz eta talde politiko ezberdinetakoak izan, **elkar** ikusketa honetan parte hartzen duten bost amnistiatu gazteak abertzaleak dira. Berauen izenak hauexek ditugu: Goyo Larrazabal, hiru urte gartzelan ("amnistiak" zortzi hilabete "barkatu" dizkio); Iñaki Egiluz, Arrankudiagakoa, lau urte gartzelatua (urte bat kendu diote); Plentziako Jexus Meñaka, bi urte t'ardi "hoteletan" (zortzi hilabeteko barkamena); Kepa Kruzelegi eta Iñaki Meñika, biok bilbotarrak, biok bi urte t'ardi gartzeletan eta zortzi hilabeteko "barkamenak".

BOST AMNISTIATU MINTZO

Guztien artean Espainiako lurralde "zoragarrienak" ikertu dituzte: Segovia, Carabanchel, Zamora, Burgos, Jaen etab.

Bost abertzale hauen erantzunak ez ditugu berezituko, guztiak beste guztien erantzunei buruz ados agertzen baitira.

— Une hauetan kalean baldin bagaude, herriak egien duen burrukari esker da. esaten digute. Nahiz eta sasiamnistia bat izan, lortu duguna burruka bidez izan da, eta ez inork "eman" duelako. Honek asko behartzen gaitu orain, dio beste batek. Guk orain kalean egon arren ezin dugu bizitza lasai bat hautatu...

— Gure erkide guztiak libre ikusi arte burrukatzean iraungo dugu guk ere, nahiz eta birgartzelatua izan...

AMNISTIA OROKORREZ

Orain denok amnistia orokorra dugu helburu: nola lor dezakegu helburu hau, zuen eritziz?.

— Burrukan segituz...

— "Hau" leher araziz, behin eta betiko...

— Ez dugu uste amnistia orokorra "emana" izango denik...

— Amnistia orokor batek gartzelatuek ez dutela "deliktu"rik egin onhartu behar luke.

— Gobernu demokratiko batek amnistia orokorra bere lehen helburu bezala hartu behar luke. Gobernu demokratiko batek amnistia oso batetan oinharritua izan beharko du.

— Amnistia ala hil...

GARTZELAK, BETI GARTZELAK

Gartzeletan igarotako urteek ez dituzte gudari hauen bizitza burrukazaileak menperatu. Hala ere arima barruan gartzeletan bizitako egun gogorrak sakon sartu zaizkie.

— Gartzeletan, biziera gero eta gogorragoa bihurtzen ari da. Diktadorea hil zenetik gure bizitza mugatuagoa egin zen, kanpoan politikari ofizialek "liberal" hitzak esaten zituzten une berean.

Zigor gelak, bakartateak, umiliazioak, liburu zentsurak, gure herritik gero eta urrunago egoteak... Bizitzako esperientzia guztiak multzo ilun batetan agertzen dizkigute bost abertzaleok.

— Gutatiko bi, pro-amnistia talde batetan sartu gara, herri-presio baten agerpen bat baita.

— Preso arruntak gu baino askoz hobeto bizi ziren gartzeletan eta, gainera, funtzionarioek gure kontra jartzen zituzten...

— Gose greba egitea "falta muy grave" da eta erredentziara heltzeko bidea urte oso batez atzeratzen du...

Pro-amnistia eta beste erakundeak bere agerian azalduko injustiziak indar itzalez hornitzen dira bost aho hauetan.

— Gartzeletako zuzendari batzu ez dira normalak. Funtzionario artean ba dira gizon ondratu batzuk, baina gehienak...

Segoviatiko ihes-egitearen ondoren gartzeletan bizi izandako egun ikaragarriak, batez ere, bizirik daude gizon hauetan.

KOORDINAKETAK, BEHARREZKOAK

Abertzale koordinaketaren defendatzaile sutsuak ditugu amnistiaren hauk.

— K.A.S. behar — beharrezkoa da —, dio Goyok Herri mailan, langile mailan, ezberdintasunak ttikiak izaten dira askotan eta, nire ustez, koordinaketa bidez zuzendarien artean izaten ohi diren ezberdintasunak gero eta ttikiagoak bihurtuko dira.

Bost gazteek E.T.A. batatzaile garrantzikoena bezala ikusten dute.

— E.T.A. izan da urte askotan herraren defendatzaile gogorrera eta hortik dabiltzen sukursalitek orain burruka honen fruituak bereak egin nahi dituzte. Hortik dabiltzan askok, ahotan Euskadi "gorria" dutenek, guk gure paperak Euskadi sozialista eskatuaz izenpetzen genituela jakin dezatela.

— Troskoak beti berdin...



POLONIAKO OPORKETAK

Iraultza sozialista lortzeko "Alderdi Komunistaren Gidaritza" bete beharreko baldintza da, diote Maok, Stalinek, Leninek jakina, eta teorilari marxista-leninista guztiak. Berau eta bakarra, antza, zeren hori gabe ezin omen baita ezer erdietsi. Boterea lortu eta gero, eta sortu baino lehen askotan ere, gidaritza horrek sortu duen bulegokrazia, ordea, zehatzago diodan, aristokrazia, oso da beldurgarraia horregatiko, eta komunismoaren helburuak lortzeko ematen dituen ahalbideak oso zalantzatan jartze-koak.

Ez dut itaun txatxarrik eginen, ez dut Txekoslovakia kontua aita izan nahi, ez eta, esate baterako, errepublika sozialistektatik jendeen ia irtenezina ere, baina bai zalantzatan jarriko, boterearen nagusi horik proletalgoaren ordezkari jatorrak direla, beronek aukeratuak, eta halaber beren politikaz, beren buruak ondo gorde eta zaindu besterik, klaserik gabeko gizarte horren antolaketaerako ezer egiten duketarik.

Gertakariak ezagunak dira, Poloniako gobernuak jakien salneurriak goratu nahi ukan ditu, eta langileak kalekurridetan hasi zaizkio, beren bizimoduari ezin luzeago utsiz. Proletariek in batera "intelligentsia"ko elementuak ibili bide dira.


1970.an gauza bera gertatu zen; hartan, Alderdi Komunistaren orduko idazkariak, Gomulkak, bere postua utzi behar ukan zuen. Oraingoak, Gierkek ez dirudi gauza bera eginen dukeenik. Hartan 20 o/ogon nahi ziren prezio guztiak. Gogorra izan zen langileen erantzuna beren "ordezkarien" kontra. Poli-

ziak 12 hil zituen tiroka. Oraun, zauritu asko eta hil bi behintzat gertatuz gero, epaiketa ahalkegarri batez 5 urterarteko atxilotze-kondenak dituzten epaiak eman dira. 1970.an Gierkek aldaketak zituen prometatuta eta agindu; kontsumurako gaiak apur bat gehitzea izan dira hauk guztiak, eta azkenean, espero zitekeen moduan, kale nagusia.

Agian, baten batek iraultzarako "beharrezko-tzat" zuzenetsi nahiko duke jokabide hau. Gierkek berak eta Alderdi Komunistaren bulegokrata guztiak bezalâ. Hau da hau, boterea galduko luketenean, hain zuzen, kontuak aldatuko balira. Libre egin nahi den proletariaren izenean, polizia haren kontra erabili behar bada, ez dakit nongo "burjes koskorkeria-gatik" oso kapitalistazale delako, utikan alderdi zapaltzaile hori! "proletalgoaren diktaduratzat" alderdi batena ulertzen bada, doazela kaka jatera eta ez daitezela langileen izerdiez bazka!. Baionako biltzarretan lagun batek erran zuen moduan: "Marchais jaunak ez luke proletalgoaren diktadura atzera bota behar, alderdiarena baizik".

Ez da izaten berezko, nik uste, Augusto Assia eta hainbat "komunistek" zaharkitu eta burjes koskortzat gauza bera jotzea, Autokudeakuntza, inongo eta inoren botere eta ahalmen pilatzerik uzten bide ez duen sistema bakarra, nonbait. Marxek esaten zuen hura "behera lan alokatua, behera lan alienatua", ene ustez marxismoaren benetakoa muina, gertakizun egin bide dezakeen molde bakarra.

TERRORISMOA MUNDUON



Juliane Plambeck, Monika Berberich, Grabielle Rollnick eta Inge Viet lau anarkistek ihes egin dute Berlineko Lehter kalean dagoen emakume-gartzelatik. Laurak akusazio larriez horra sarturik, sekulako atalakia sorterazi dute Alemaniako Errepublika Federalean. Berlineko Justiziministroa (Justizminister) Oxfort Jaunak, Alderdi liberalekoak (F.D.P) bere kargua utzi du, edo eta utzi behar ukan du, eta urrian izateko diren parlamenturako hauteskundeak direla eta, CDU/CSU eskumako alderdiek ikaragarriko eraso propagandistiko batez hasi dira higitzen.

Horrela, bada, Herraldeen Biltzarrean (Bundesrat), Biltzarre Federala dei genezakeena euskaraz, CDU/CSU-ko biltzarkideek, Gobernuak gertatu duen Terrorismoaren kontrako legea atzera bota du, lar makala delakoan. Izan ere, lege hau beste baten gogortzea da izatez, 1970an egin zen beste lege baten zorroztea. Biltzarrean, hots, Parlamentuan,



F.D.P.-k eta S.P.D.-k (Alderdi Liberal eta Sozialdemokrata) gehiengo dutenez, horiek osatzen baitute oraingo gobernuia, legea onhartua zegoen. Eskualdeko Biltzarre horretan baina, atzera igorri denez gero, Alemaniako Lehendakariak erabaki beharko du, Scheel Jaunak, hain zuzen, F.D.P.-koak, Biltzarre Federal horretan, jakina, CDU/CSU-k gehiengo dute, jendetzaz ez bada, herrialde-gobernu gehiago zuzentzen baitituzte. Betiko legez, eskuinak indarra du argudio bakarra, aztertu gabeko errealtatearen hutsen kontrako daukan "erabazpen" bakarra horixe baita, beren interesen defendatzekoa, noski.

Hau guzti hau Alemanian, eta aste bete dela Europako Elkarteko ministroek batu eta terrorismoaren kontrako lege eta ekintzak prestatu behar direla erabaki dute. Ez da, horregatiko, harridura hain bizkor desagertzen: Genscher, Alemaniako atzeritar arazoetarako ministroa, Brasilen Geisel eta hango gobernariekin mintzatzen eta itunak egiten ikusi dugunean, edo eta Giscard Hegoafrikako Errepublikari zentral nuklearrak saltzen.

Alemaniako Alderdi Liberaleko politikaririk baten "errealismoa" zuzenesten zuen politika hau. Ontzat eman daitekeen argudioa, agian, baina terrorista hauekin, Txile, Brasil...e.a.koekin errealismoa gutik mintzatzen bada, zergatik beste "terroristen" aitzitik legerik sor? Sakto eta erosi behar delako noski. Ez da erraz ulertzekoa, baina badakigu azken bate-

tan atzeak duena erakusten gurreak nola dantza. Hiri pokresia eta aizunkeria hemendik dabiltza nagusi bazterrak harrotzen. Zeren argi baitago Brasileko edo Hegoafrikako Errepublikako, edo Txileko mugimendu hartatu guztiak, eskuineko poliziterismoaren kontrako erantzun bat besterik ez direla, agintearen terrorismoaren kontrako ihardespen bat.

Eta ez da hau, jarkera hau, askok dioten moduan, ezkerri dena barkatu nahi izateko jarkera, eta eskumari deus ez, zera baizik, azken batetan oraindik sozialdemokratak, Europa osokoak, (sozialistek oraindik ez dute berari erakutsi) kapitalismoaren administratzaile zintzo eta gizatiarrak erakustekoa direla, baina ezertan ere ez edo oso neurtipian daudela prest, kapitalismoaren interesen kontra ezer guti egiteko.

Gauza bat kontutan hartu behar datekeena, edozein kasutan ere, bizirik dabilen hipokresia hori dela eta hau da: ez dela komeni, eskumaren argudioak ezer balio ez dezan, burruka egiten den eskualdetik kanpoko jendearekin sartzea, azken finean ezer guti jakin gabe ondo xamar bizi den alemanak eta ingelesak aitzitik deus egin ez dezaten, eta bai zertxobait alde, bere lasaitasunean bizi izaten utzi behar baitaie.

Andolin Eguzkitza

teatroa:

LES GRANDS SENTIMENTS

Zergatik ez pentatu, teatroa, jantzean, zirkoko hutsa dela. Jerome Savaryk hori pentsatu bide du. Eta bere teatro Ensembleari **Grand Magic Circus** deritza. Animalioak, denak pertsona dira, noski. Aktoreak eta aktrisak. 1968-an hasi zen Jerome Savary bide hortatik. Urtea aipatzeak zerbait argitzen du kasu honetan.

Gran Magic Circus ijito zirkoen antzera, herri herri dabil. Goitik behera, dena esperimentu hutsa duzu ekipoa. **Les grands sentiments** deritza aurten erakusten duen ikuskizunari. Zergatik sentimentu handi bakar bat ospatu, sormen, ikuslerian; eta ez sentimentu tipi asko? Zergatik impresio handi bat, eta ez impresio tipi asko? **Les grands sentiments** sentimentu tipi askoren patata zaku bat da.

1968-az gero arte produkzio guztiak dabilkigu oilategi moskor bat baino nahastuago. Teatroan, hala ere, beste inon baino gehiago esperimentatzen da. Posibilitateak ere inon baino handiagoak dira. Hemen arte produkzioa, errepresentazioa ta kontsumoa, denak elkar-bat litezke. Aktoreak egiten du ikuslea ta ikusleak egiten du aktorea. Errepresentatzea ta ikuslea esperentzia kreatzaile bat eta bera bihur litezke, bi esperentzia banatu izan orde. Aktoreak eta ikusleak esperentzia ber-batetan murgil eta urtu litezke.

Funtzioa hasten denerako, hain daude Savaryren aktore ta aktrisak atarian, publikoaren zain. Geroke beren teatro jarkera, aurpegi pintatu ta maskara ta rekisitoekin. Datozenekin solasean: agur honi ta magur hari, befidaniko ezagunak halituzte bezala. Publikoa sartu denuan, haren aitzetik sartzen dira aktoreak, bata trompetak joaz, bestea sasofoi, kantu sentimental bat abestuaz publiko guztiarekin. Hasi da festa.

Savaryren obra-eskenakera bakoitza esperimentu bat eta entsegu bat izan da. Obra bat entseiatu da, sentidu bat. Eskenakera berri bat esperimentatu, irudi bat, Filosofia bat eta bere kontrarioa burrukan erabili dira. Tintuek berek nahiko adierazten dute: **Zartan, Tarzanen neba gaitzeritzia; Robinson Crusoreen azkeneko bakartade egunak, Moisegandik Maoganaino, ta gehiago.** Savaryren teatroan ekitaldi bakoitza osoa da. Ekitaldi batek beste berrak, baina ez dio segitzen. Ez du ekitaldi batek bestea desarrollatzen. Eta, oro har, ekitatza, gertatzen dena, zatien sumu besterik ez da. Desentzakerik ez dago noski, entzakerik ez dago ta.

Les grands sentiments-en dena batera amaitzen dugu: zerbait show, apur bat Brooklyn-musical, ballet pitin bat, komedia asko, zirkomedia ia dena, melodrama, kantahieroa publikoaz batera, dena teatro azkenean. Ez dago, aktore ta aktrisek buruz dakiten paperik. Inprobisazioa oinarriko parte da zirkoteatro honetan. Eta inprobisazioan asko esan nahi du, publikoa nola portatzen den. Berisolarientzat bezala. Numeru denak aldakorrak dira, segun publikoa.



Savary zirko presentatzailea da. Jendea agurtu, tontakeriak esan, numeroak presentatu, komentarioak egin, han dabil eten gabe, aktoreak eta aktisak berean ari diren artean. Ipinetako tipo ezagun guztiak maneiatzen dira, nola baita: Txanogorritxoak eta Basajainak eta sorginak. Aktoreak eten gabe maskara aldatuz ari dira. Haur bat iaotzen da eskenarioan. Cinderella pobreak dirua eskatu behar du kalean, beste Magdalena batzuk nahiago dute etzanda diru irabazi. Aeskak, biluz-biluz, publikoan sakabanatzen dira. Prestiditadoreak ohiako mitxia ateratzen du; baina ez souberotik, publikoaren erdian egindako kopulazio aparatoso

batetatik baizik. Eskenarioan liliputanoa ta jigantea ikaragarriko burrukan ari dira, bosean, printzesa tristeagatik. Savaryk publikoa bi alderditan banatu du, garrasika, denbora guzian ari den piano desesperatua baino garrasikago, zein liliputanoaren eta zein jigantearen alde. Jakina liliputanoak irabazten duela.

Savaryk lehenago Arrabal eskenarazten zuen, Orain ideia honetan bukatu du: teatroa aktoreen eta ikusleen festa da.

Gregorio Baldatika

GRUPPO TEATRO LIBERO

Italiako herri teatroaren buruan jarri da, denbora gutitan, Napoliko ensemble hau. Nora heldu, hariak ere dantzan jarri ditu. Presentatzen daki eta probokatzen daki. Eta, gehiago dena, kalitate-rik hoherena gordetzen daki, mezuan soil konfiatu gabe.

Armando Pugliese eta Flvio Portaren Masianello emanaz ibili zaigu joan den sasoiari.

Masianello historia zahar baten ikuskaria da. Gizon simple baten historia: nola goien-goieraino igon eta beheraino jausten den Napoliko iraultzaldi batetan. XVII-gn mendeko arrandegi baten jabea zen Napolin Tomasso Aniello lehenengo Masianello eta gero Masianello deitua. 1647.eko uztailaren 7an iraultza ikaragarri bat sortu zen Napolin. Albaramendu izugarria. Kasua zen, Espainiako Errege-ordezkoak arrain, ogi, baratzeakari eta beste jakien gainean zergak ipini zituelako. Dendari ala herri, samaldaka denek kalera irten zuten asaldatuta sutan. Masianello herri-tribuno bizkor agertuko da, sua dariola, guzien buru. Jendaroste amorratuen buruzagi altxatu da Errege-ordezkoaren aurka. Ikaraturik, Errege ordezkariek amor ematen duen itxura egiten du, eta Masianello Herriaren Kapitain Jeneral izendatzen du. Gorteak ohoraturik, herriak txaloturik eta segiturik, Masianellori haizez betetzen zaio burua eta arrain ttipi analfabeto baten tza ur haunditan sartzen da. Politika haunditan hasten da. Mundua ordenatu nahita hasten da. Nagusi ahalguztidun bezala gobernatzen du. Tirano beldurgarri bihurtzen da. Hitzik kontra ateratzen diotari, lepoa moztuko dio. Aholku onik damaiona ostikoka darabil. Lehengo adiskideak izutzen ditu. Bakarrik, gelditzen da. Eta iraultzaren hamaikagarren egunean, Meza Nagusian dagoela, Del Carmine elizan, tiroka garbitzen dute. Jendarosteek haren gorpua urkatu egiten dute.

Zeinek garbitu du: Gorteak, Elizak, bere segitzaileek? Denak izan zitezkeen Masianello, herriko seme eta herri tribunoa, herriaren salbatzailea, denek etsai zuten, azkenerako herriak ere, eta herriak ez gutienik hain zuten. Denen gainetik zigorka eta ostikoka pasa den Ferrorea da. Eztanda absurdo baten zartada. Denek biztu duten infernua. Denak erauntsi eta zanpatu ditu. Deusezean suntsitu da. Hamar egun iraultza Napolin.

Bruno Garofalak eskenario bat propio prestatu du obra honetarako. Aire librean edo sala zabal batetan —merkatu edo fabrika sala— erreprezentatzeko eran: sei eskenario edo tarima desberdin, mugikorak, beren artean konbinakera aldatzeko. Bi partetan banatuta seiok. Alde batetan, Gortea, Eliza, jauntxoteria. Bestean, herria, Masianelloren etxean, asaldatuaren biltzarrea. Ekintza desberdinak batera desarroila litezke. Erlazioak desberdinki antola litezke, ekintza aurrera doan eran: herria eta Masianello, herria eta Gortea, eta abar. Tarimok arroda gainean daude eta eskena ezberdinetarako hara eta hona eramaten dira.

Hasiararik azkeneraino eskena bortitz impresionagarriak. Sekulako kanbioak. Bizi-bizia. Iraultza biztu, nagusitu, alferrikaldu eta suntsitu, hamar egunetan egiten da dena.

Giulio Genoino abokatuak laguntzen dio lehenengo Masianello analfabetoari. Herriko seme simpleak errespetu kasik erlijioso batez entzuten dio ikasiari. Oso paternal, eskoladuna. Baina gero, indartsu sentitzen denean, Masianellok ez du ezer jakin nahi eskoladunarekin. Ez du Genoinoren aholkurik nahi. Genoinok irabaziak aseguratu nahi ditu. Genoinok egituretan pentsatzen du. Masianellok indarra eta gertaerak besterik ez ditu ezagutzen. Inteligentzia eta iraultzaren indar espontaneo ezin dira elkarrekin ulertu. Masianello intriga artean nahastuko eta galduko da. Inteligentziak bere zortera abandonatuko du.





Errealistak, eskenak, Jauntxoek mainak. Paper faltsuz, kontzesio faltsuz, titulu faltsuz, ohore faltsuz, Masianello Gorteak nola enganiatzen duen. Masianello gajoa tranpan nola erortzen den. Gorteak, egituren indarrak, bereetako bat egiten du iraultzaren indarra. Are despotikoago.

Zeinek saldu du eta galdu du iraultza?

Munduen arteko diferentzia erakusten da: herriko gizon sinplea eta gortesanoa. Masianelloren emazte Bernardinaren eta Erregin-ordezkoaren el-karrizketa. Herria, iraultza sutan bizturik; desengainu saminetan errerik.

Obra hori sentimentu guztien feria da errebolta batetan. Jendearen beroak eta biziak XVII mende napolitanoan berea eransten dio. Jendea gora eta behea nahasturik nola dabilen. Sentimentu olatuak nola iraultzen diren. Herria sutan bihurrituta, Gorteak uzkur ikaratuta lehenengo; herri desengainatu negargarria eta Gorte ziniko garaitsua gero; bildurra eta mendekua. Herriko seme zintzo bat, mincz


eta indignazioz lehenengo, ausart eta argi gero, harro ta krudel azkenean, haundinahi eta tirano: herrian, herriko seme bat besterik ez delako mendekatzen dena. Intelektuala, maisukiro aholkari eta onginahiezko herri maitale jakitun lehenengo, hotz eta zuhur eta bere buruan ustez beterik, garaipena eta garaipenean bere influentzia aseguratu nahita gero, behazunez eta herriaren mespretxuz aldendurik azkenean. Masianelloren emazteak, gora begira, goi-goiko Erregin-ordezkoa, urre eta zeta artean, nolako begiz ikusten duen, eta honek behe-behean arrantzalearen emaztea nola ikusten duen; gero biak parean, solaskide, bildurra eta gorrotoa, miresmena eta mespretxua, bi klase sozial emakume bik agertuta. Paradigma bat da dena.

Ihardunaldi bakoitza kantuz iragartzen da. Tarantela eta herri kanta napolitano zaharren eran prestatu da musika.

Gregorio Baldatika

Argia ezinbestekoa den tokian,

SAFTURA bat ezar. Berezko argia du.



URA B-30



URA LR-206



URA GENELUX-3000

Jantoki, iraganbide, ikasgela, botikin, zaingela, eskailera, logela eta antzekoetan,

SAFT-URA emergentzi argigailuek beren segurtasuna eskaintzen dizute.

SAFT-URA-k pilagun argigailutan aukerarik ugariena dauka: aldizkakoak, semaforoak etab...

SAFT

IBERICA, S. A. Artapadura, 11 - Tfnoa. 26 17 00 - Gasteiz

TEOLOGIA EUSKAL HERRIAN

Duela denbora guti eta ANAITASUNAN bertan, zerbait idatzia dut arazo honetaz, bidena-bar gure arteko zenbait teologo (?) astintzen eta jipoitzen nituelarik. Orduko bide beretsutik doa gaurko ere eta haren segida bezala har daiteke.

Gai hauetaz ezer guti argitaratzen da gure artean eta horretxek adierazten du, hain zuzen, gure egoeraren larria eta gorria. Gaurko Euskal Herrian fededun izatea ez ba batere erraza eta gutienik aitortu beharrekoa hauxe da: herrigintzaren barrenetik bere fedea bizi eta pentsatu nahi duena erabat umezurtz aurkitzen dela. Azken finean nire galdera eta kezka hauxe da: Euskal Herrian ba ahal da Elizarik eta fededunik, gure Herriaren mementuari erantzun bat damaionik? Nik neuk ez dut batere garbi ikusten hauzia. Hobeki esan, Euskal Herriko Eliza, erakunde eta multzo bezala, erabat zaharkitua eta Herriagandik apartatua ikusten dut.

Dena den, eta gure egoera lartzaren gainditzeko, zenbait gogoeta proposatu nahi nituzke, urlia edo sandiarentzat baliagarri izan daitezkeelakoan. Ikasturtearen hastapenetan gauden honetan, egokia dateke gisa honetako zenbait planteaketa egitea. Horrela, besterik ez bada ere, kursoan zehar eihotzeko alea daramakegu Euskal Herriko errotara.

Teologiaz mintzatzerakoan, lehendabizi planteatzen zaigun hauzia zera da: non eta nondik egin teologia? Bestela esan, non txertatu behar da fedeari buruzko "logos" hori?.

Erantzun baten bila has bagaituz, laster etorriko gara puntu honetara: halegia, teologia Herri baten dinamikaren barrenetik egin beharreko gogoeta dela, eta osterantzean ideologia hutsa bilakatzeko dela. Hori bai, beti ere fedeari buruzko gogoeta izanen da, baina fedea eta fededuna Herri batean suertatzen dira ezinbestean.

Hortaz, Herriaren historia eta dinamika —Herriaren prozesua eta bizitza— guztiz haintzakotzat hartu beharrekoak dira teologia egiteko. Hortik kanpora, ezin genezake teologiazko planteamendu serioerik pentsa. Herria, beraz, fedearen hermeneutikarako lekugune nagusia eta berezia gertatzen da.

Herriaren bizia eta dinamika, ordea, kultura berezi batetan gatzatzen eta adierazten da, hots, herri kulturak sail asko harrapatzen du: politika, ekonomia, kulturgintza, etab. Hortaz, hori dena ezinbesteko mediazio duke teologiak. "Humus" horretan sar ez bada, teologiazko gogoeta txaingua eta maingua geratuko da, lurrik eta zuztarrik gabe aidean legokeen arbolaren pareko.

Hauzi honetan, punturik zailena hauxe dateke: une eta muga jakin batetan, norik esan dezake eta nola asma daiteke Herriaren dinamika (dinamika askatzailea, noski) nondik nora doan?.

Ene ustez, teologi lana finkatzeko orduan, ez litzateke gehiegi murriztu beharko Herri kontzetua. Herria askatu nahian dabilzan indar guztiak hartu beharko lituzke kontzetu horrek, Beraz, teologia kritiko bat egiteko, ezin gintezke ideologia jakin baten esanetara erabat muga. Hori ere teologia ideologia bihurtzea izanen litzateke. Noski, teologiak —giza sorkuntza den aldetik— beti izanen du ideologiatik zerbait, baina printzipioz bederen teologia ezin daiteke erabat ideologia baten eskemetan sar eta hertsiki. Jakinaren gainean, hala ere, teologiari beharrezko zaizkiola ideologiak giza mediazio bezala.

Bestalde —eta hemen dator beste puntu nagusi bat—, teologiak ondo gogoan eduko behar du Herriaren proiektu historikoa, Herriak zer nahi duen eta zeren bila dabilen, halegia. Proiektu horrek ba du bere autonomia, eta teologoa —eta Elizaez da inor bere gisa beste proiekturik aurkezteko. Teologoak eta Elizak, fedeari darion aportazio berezia eskainiko diote Herriaren proiektu historikoa-ri, baina ez besterik. Fedeak herrigintzari trazendentziarako irekitasuna damaio eta, bide batez, giza dimentsio guztietarako irekitasuna.

Gauzak gisa horretan planteatuz gero, ez da erraza herrigintza eta Jainkoagandiko salbamendua nola uztartzen diren adieraztea. Dena den, biak batera gertatzen dira, nahiz eta biak gauza bera ez izan. Nola esplika liteke hori?.

Esplikabide bat honako hau litzateke, agian. Herrigintza beti ere Jainkoagandik datorren salbaziora idekia dago. Bestela esan, herrigintzaren (praxis historikoaren) une eta maila oso Jainkoaren praxis salbatzaileari idekia dagokio, salbazio hori orainaldian mundu honetako historian gertatzen delarik, historia bera harantzago bultzatuz. Trazendentzia hemengo historian (herrigintzan, praxis historikoan) egiten da presente, baina beti ere trazendentzia bezala. Hots, trazendentzia dohain libre eta doan emana bezala ageri da beti. Horri esker, gizona bera ere libertatez hornitua aurkitzen da goitik (Jainkoaganik) datorrekin dohaina onhartzeko, dizernitzeko eta interpretatzeko.

Teologiak Herriari beronen historian lagundu behar dio, herrigintzaren autonomia haintzat hartuz eta fedeari dagokion berezitasuna ukatzeke. Teologia, hortaz, herrigintzari buruzko gogoeta kritikoa izanen litzateke, Jainko Hitzaren argitan. Horra teologiaren definizio berria, Gustavo Gutiérrez-en hildotik.

Hau dena Euskal Herriari begira dago esana. Hain zuzen, hemen egin daitekeen teologiak serio-tasun apurrik izanen badu, geure Herriaren bihotzetik hitz egin beharko du, hots, herrigintzaren hildotik eta esperientziatik. Hortik kanpora, hitz oro hutsal eta alferrikako gertatzen da.

ANAITASUNAREN Zuzendari Jn. Donostia.

Zuen Iraileko 323-4. zenbakian Martin Orberen idazlan bat dator Uztaritzeko U.E.U. dela-ta. Hemen, besteak beste, M.C.E. koek agertu zuten alternatiba berri ematen digu eta azalpen honetan gertaturiko hauzi bat aipatzen. Hona hemen bere hitzetan, konforme ez nagoen puntua zertan den: "Hitzaldi honetan norbaitek hartu zuen jokaera desegileari ez zitzaion irakaslegoa jarraitu, aspalditik politikagintzan ari denarena baino heldutasun gehiago frogatuz".

Ikus dezagun zertan datzan "jokabide desegile" hori.

Bat. MCEkoen jokabide praktikoa salatu zen. Salaketa honetan erakunde honen praktika politikoa agirian geratu zen, eta praktika hori ez da abertzalea.

Bi. UEU bloke abertzaleak atera du aurrera, eta bereziki ezker abertzaleak. Hortaz, UEU-aren baitan dagoen plaza publikua, ez da edozein fakultateko plaza publikua.

Hiru. Plaza publiku honetan partaide izateko, gutien gutienik, ihaz UEUak plazaratu zuen Manifestua onartu behar da. Ez dirudi, ordea, MCEK horri buruz

onespen publikorik egin duenik. Eta, beraz, plaza publiku honetan parte hartzeko meriturik irabazi duenik ere ez.

Lau. Eta azkenik. Uztaritzen "norbaitek" egin zuena hauxe izan zen: MCEkoek han beren lekurik bazuten ala ez kuestionatu.

Ordea, Martin Orberentzat kuestionatze hori "jokabide desegile" bat dela dirudi. Orduan badaki zer egin ezker abertzaleak: galtzak jatsi eta ipurdia jarri.

Joxe M. Odriozola



Gernika'n 1976-ko dagonillaren 28-gnean.
ANAITASUNA-ren zuzendari jauna:

Azkenengo zuen Anaitasuna Amerikanoak Martitzera eldu direla irakurri dut. Arritu egin nau itz orrek; eta belarrian min samartu ere bai. Lerro gutxitan neure iritzia agertzen dizuet. Argitaratu gura ba'dituzue, eskertuko nizueke. Agur biotzez, eta agindu,

MARTITZ ALA MARTE?

Oraintsuko amerikanoen ibillera eta ibillaldiak dirala-ta, zarata ta zer esana ugari sortu da bazterretan. Iñoizkorik ospetsuen eta ezagunen egin zaigu planeta berria: Marte.

Nolabait esan bear eta MARTITZ deitu diote gure arteko zenbaitzuk. Anaitasunakoek lenengo, uste dut. Eta olakoxeko azalpena dakarre beren oarpenetan: Martitzena, Martise(gu)netik. Eta ortixek eta orren antzeratsu: Martitz, planetaren izena.

Alabaña, ezetz esango nuke nik. Gure belarrietara, erderaz oituak izaki, arrotz egiten da, batetik. Marte esango dizue euskaldun guztiak berez berez, beste gabe. Orrez gafiñera, euskeraz jator esan gura izan ezker, Marte da ta ez Marti. Martitzena bai, Martisena (ta ez Martis-e (gu)na). Orretxen, Martis'en, zerbait dala. Genitibo da, izan ere (1). Ala ere, genitibo ez ba da, akusatibo-tik atera zuten beti euskaldunek beren itza. Lex, legis (akusatibo: legem eta LEGE). Pix, piscis (akusatibo: piscem eta PIKE). Nex, necis (akusatibo: necem eta NEKE). Eta ezagunago dan errege: rex, regis (akusatibo: regem eta ERREGE). Oien antzera: Mars, martis (akusatibo: martem eta MARTE) bear luke, beraz. Eguna Martisena bai, baiña planeta Mart(is-em) bera dugu-ta.

Orra zuen itz berriak idaroki didana. Besterik ez.

Etxebarria tar Juan Anjel

(1) Emen genitibo biak: latiñarena ta euskerarena (-is eta -en).

E.H.A.S.ren OHARRA ARGIBIDE GISA

BERRIAK, aldizkariaren 2.alean, 8 horrialdean eta "ELA-STV: EN PLENO CONGRESO" izeneko artikuluan zera agertzen da: sindikal erakunde horren barruan gure alderdiko erkideak daudela.

Horri erantzuteko, E. H.A.S. ren Komite Eragilea ondorengook argitan jartzera beharturik aurkitzen da:

1.— E.H.A.S.ren erkide langileak, edozein langile erakundetan ekiteko askatasuna dute, erakunde horrek ondorengo baldintzapenak betetzen baditu:


- Langile Klasearen interesak bere gain hartzea.
- Fabrika Asanbleen erabaki nagusia onartzeta, horixek baitira, gure uztez eta oraingoz, langile arteko demokrazia zuzena plazaratzeko erakunde bakarrak.
- Fabrika Asanbleak koordinatzearen burukatzea, Euskal Herria mailako egiazko langile kontrabotere bat lortu arte,

oinharritik eta oinharriak berak zuzendurikoa.

2.— ELA-STVen helburuen azterketa batek zera diosku: erakunde honek ez dituela gaurkoz, baldintzapen horik betetzen. Horregatik lekuz landa ikusten dugu gure erkideen partizipatzea. Halere fidantza handiz gaude ELA-STVeko atal progresista batzuren ahaleginen zain, zeren euskal langileen eskabideetara erakunde hau moldatu nahian ari baitira beronen barruan burrukan.

3.— Lehen puntuan azalduko gutienezko baldintzapenak betetzen dituen erakunderik ba dago Euskal Herrian, langile klaseari libre eta demokratikoki baliagarri gertatuko zaionik. Gure erkideek beren eguneroko langile burrukan duten askatasuna berraipatzen dugularik, gure ustez, eguneroko praktika horrek eta gertatzen ari den abiapuruaren koordinatzeak sortuko du erakunde bat, zeinak burrukan zehar gibizatuko baititu Euskal Herriko langile guztiak.

Euskal Herrian, 1976 — urriak 2.
(K.A.S.ren osokide den)
E.H.A.S.ren Komite Eragilea



CASINAVE, Junes.
"Santa Grazi"
IAKIN, Oñati, 1976.

Zuberotarrez, euskara batuan frantsezez. Pastoral, 176 horrialde. Hlaseran, P. Laffite-n aintzin solas paregabea, euskara doctore eta aberats batean. Laffitek azaltzen digu Pastoralen sortzearen teoria bat: "mystère" direla-coetatik?. Noiz?. Lepanto-ko hasas gudua (1571) aurretik, haren iduriz. Baina zuberotarrek ez zituzten frantsesak hitzen hitz kopiatu, beren gisara antolatuta baizik. Turkoak gaitzotzat erabiltzen badituzte ere, "mystère" etan ez bezala, Zuberotan ez dituzte taulen gainean ez Jainkorik, ez Jesusik, ez Ama Birjinarik ikusiko. Bestalde, satanek ez dira frantsesen mamu itsusiak, mutiko lerden eta dantzari on batzu baizik. Jarraian, Laffitek pastoralen zehetasunak ematen dizkigu: esenariora nola antolatzen den, eta janzen diren, etab.

"Santa Grazi" pastoral berriari gagozkiorarik, Laffitek diosku Santa Garazi (lehen Urdax) herriaren historia azaltzen digula, eta herri horren historiako hainbat zehetasun ematen digu. Jarraiko horrialdeak, Junes Casnave-ren pastoralari eskaintzen zaizkio. Textoak, argazkiez horniturik, zuberotarrez ematen dira, haien parean euskara batuan eta frantsezez eskaintzen zaizkigularik. Euskaldunon geiengoarentzat pastoral honek sanahi handirik ez badu ere, interesgarria deritsogu liburu honen aztertzeari. Hego Euskal Herriari pastoralak ia zeharo ezezagunak direlako.



GEREÑO, Nabier.
"Metodo de Euskara"
CINSA, Bilbo, 1976.

Euskara batua ikasteko metodoa, 1000 hitzetako hitzegi oinharritzko bat erabiltzen du, eta 1300 esaldi eskaintzen dira, euskaraz eta gaztelaniazko itzulpenarekin. Liburuaren azken partean euskal aditzaren eta deklinabidearen koadroak daude. 176 horrialde eta 200 pezetaren baliadendetan.



GOIMENDITAN ZEHAR
Antxon Narbaiza
GERO KIMU saila

NARBAIZA, Antxon.
"Goimenditan zehar"
GERO, Bilbo, 1976.

Euskara batuan, 160 horrialde, KIMU saileko 15. tomoa. Gaztetzozentzat, euskara errazean idatzita.

Liburuaren gaia mendialdira, eta foto eta grafiko ugari datorrigu. Mendi zaletasuna nola sortu zen aztertzen du Narbaizak Hlaseran. Gero, mendizaleek erabiltzen dituzten tresnak, kanpamenduak non eta nola eraki,

etab. Bigarren kapituloa Izoztegi lotzen zaio, eta hirugarrenean mendi igoera ezagun batzu kontatzen digu. Laugarrena, mendietako abere eta landareei eskaintzen dio. Bostgarrenean, mendiko gaitza aztertzen da. Hurrengo kapituloak mendizale famatuak eskaintzen zaizkie. Batzu, euskal mendizaleei, haien izen eta biografiaz azalduz.

Everest mendiaren historia oso interesgarria da eta zehetasun ugari eskaintzen du. Antxon Narbaizak dioskunez, "Everest mendiarekin Euskal Herriko hainbatekin bezala gertatu da: izena erdaldundu, arrotzu diote. "Sagarmantha" edo "Chomolungura" izan behar zuenak, eta harrigarria bazeu ere, Sir Georges Everest jaunaren izenaz ezagutua da. Georges Everest hau ez zen mendizalea edo ikertzailea, matematikoa baizik". Liburuaren amaieran, hiztegi teknikoa ikus daiteke.

Liburu hau biziki gomendatzen digu batez ere ikastoleetako iburutegetarako.



CASTELAO (idazle)
IZAGIRRE, Kolde (itzultzaile).
"Kristalezko begi bat. Eskeleto baten orioimenak"
KRISLU, Donostia, 1976.

Euskara batuan, 64 horrialde. Castelao digu, idazle galegoaren artean ospetsuenetakoa. Liburu honetan azaltzen digu kristalezko begi bat zuen eskeleto baten pasadiznak, bai kanposantutuan berran eskeleto lagunekin solasean ari dela, bai toki hartatik irten eta ikusten zituana jasorik. Humoristena eta Banpiroarena dira, behar bada, interesgarrienak. Liburu ongi presentatua, eta Castelao beraren irudiz aberastua



COMO TE DECIA, KARMELE, EL NIÑO VA AHORA A LA IKASTOLA...



...ZERA... BAI, (KONTUZ) IKASTOLARA DARAMAGU AURTEN...



COMO TE IBA DICENDO, ERDABLA BLA BLA BLA...



GURE "ZAINTZAILEEI" ESKER EUSKARA SALBATUKO AL DA BA ?

EZIKE  EZI  EZIK

EUSKADIKO IRAKAZKINTZA GAUZETAZ SAIAKERA

Documentos de trabajo del Partido Comunista de Euskadi
Euskadiko Alderdi Komunista



Partido Comunista de Euskadi-koek Dossier sobre cuestiones de enseñanza en Euskadi izeneko bat argitaratu berri dute, dauzkan irudiak -guk dakigularik horretarako baimenik inori eskatu gabe, baina tira, komunistak badira...- Anaitasuna-tik harturik.

Dossier horren tituluaren euskal itzulpena -euskaraz datorren gauza bakarra berai- oker nabariz azaltzen da. Ez dakigu irakazkintza hori ikatza egitearekin zer ikusirik duen ala ez, ez eta ezike-delakoa zer arraio datekeen. Carrillo burkideak Goiz Argi-ri erantzun ez badio, noski, euskara ez dakielako besterik ez da, eta jakina, ez da dienik nekez irakats diezaike bere jarraitzailei.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									
11									

LUZETARA: 1: Kontsonantea.- 2: Gurasoen ama.- 3: Bokala. Bildurra. Bokala.- 4: Hizketa, berriketa (pluralean).- 5: Emakumeen jantzia. Abotsa (alderantziz eta artikuluairekin).- 6: Erdi haroko txanpon bat (pluralean).- 7: Bokala. Edo. Bokala.- 8: Amaia.- 9: Bokala.- 10: Kontsonantea.- 11: Erretzen duen landare bat (artikuluairekin).

GOITIK BEHERA: 1: Kontsonantea.- 2: Konforme, akort (alderantziz eta artikuluairekin).- 3: Bokala. Nazioarteko batasuna (alderantziz). Bokala. Bokala.- 4: Mila batzu (pluralean) Kontsonantea.- 5: Alaitasuna (artikuluairekin). Alegatu.- 6: Batizatea (alderantziz). Kontsonantea.- 7: Bokala. Baratzeko landare bat. Bokala. Bokala.- 8: Ukatuz.- 9: Kontsonantea.

AZALPENA: 1: P.- 2: Amona.- 3: A. Izu.U.- 4: Jolasak.- 5: Gona. azOB.- 6: Dukarak.- 7: A. Ala.- 8: Akabu.- 9: I.- 10: T.- 11: Asuna. GOTIK BEHERA: 1: 6.- 2: Asoda.- 3: A. onU. A.A.- 4: Milakak.- 5: Poza. Alaitu.- 6: nusatab. N.- 7: A.Aza.V.A.- 8: Ukoa.- 9: B.

EUSKAL HERRIKO ATE ERAKUSKETARIK HAUNDIENA

José de Ezpeleta, S. A.

EUSKAL HERRIKO ATE ERAKUSKETARIK HAUNDIENA

JOSE DE EZPELETA, S.A.
ATEAK - PANELAK - HOLTZAK

BILBON
Oficina central
Príncipe, 5
Tlf: 4230930

ETXEBARRIN
Carretera Bilbao - San Sebastián Km. 4'5
Edificio Saga
Tlfs: 4493143 - 4495058

BALMASEDAN
Correría, 47
Tlf: 6800604

ZARAUTZEN
Polígono Industrial, s/n
Tlfs: 841013 - 841906

GASTEIZEN
Urartea, 12
Polígono Industrial Aligobeo.
Tlfs: 243850 - 54

BILBOKO ERAKUSKETA
Buenos Aires, 1 - bajo.
(Sotano Aviaco)
Tlf: 4219811

anaitasuna

Bizkaia
hamabosterokoa
ZUZENDARIA:

Joan Mari Torrealday

Urteko abonamendua:

Bertorako 500 pezeta
Latin Amerikarako 550 pezeta
Europa eta Ipar Amerikarako 700 pezeta

Ale bakoitza: 25 pezeta.

HELBIDEA:

Pelota, 4-1.º, Bilbao-5
Posta kaxa 495. tel. 4167449

Aldizkari hau irakurri nahi baduzu, bete ezazu argi argi

ondoko txartela eta bidal helbide hontera:

ANAITASUNA - Pelota, 4-1.º

Apart. 495 - Bilbao-5

Izen-deiturak

Bizilekua

Herria

Probintzia Tel

Gipuzkoan, nor gu baño gertuago?

91 etxe zuretzat urbillago

Izan ere, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa etxe hau duzue Gipuzkoako Kutxetan lehengoa.

Horregatik, gipuzkoarren zerbitzurako beti gertu eta prest egotera behartuak gauzakazu. Hauxe da gure egitekorik nagusiena. Horretarako sortu zen, batik bat, Caja de Ahorros

Provincial de Guipúzcoa 1896. urtean. Gipuzkoar kutxa duzue Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa. Ba duzu arrazoirik, beraz gurekin elkarturik egon zaitezten.

Utz ezazu zeure uste osoa. Gipuzkoako lehen Kutxa den etxe honetan.

**CAJA DE AHORROS PROVINCIAL
DE GUIPUZCOA**

